

TOKIKOM

2022ko urria | 229. zenbakia

ai!kor!

txorierriko aldizkaria



Euskararen kale-erabilera

Hausnartzeko garaia

LauraCastilloOscarTerolZamudiokoJaiakPentagrama25Urte



ZUK EGITEN DUZU *Txorierrri!*



ZUK EGITEN DUZU TXORIERRI



lan, ikusmena esku onetan
uzt 15 ZAMUDIO



Leire Begoña, 25 urte ilea zaintzen
Aikor aldizkaria uzt 08 TXORIERRI



kooperatiba, 1925etik
eka 17 ZAMUDIO



Gaztedi, eskair
Aikor aldizkaria el



Zainduz, 26 urte Derion
Aikor aldizkaria mai 31 DERIO



-  **6** Iritziak
-  **7** Laburrak eta albisteak
-  **10** Laura Castillo, gozogilea
-  **12** Gurean izan da... Oscar Terol, umoregilea
-  **14** Gaztea eta... Iraia Navas, karrozaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Menditik patxadaz... Zuhaitzak
-  **20** Gai nagusia... Euskararen kale-erabilera
-  **26** Zamudioko azoka eta San Martin jaiak
-  **30** Pentagrama Sondikako musika-elkartea
-  **32** Emaus
-  **33** Herbarioa... Urrezko makila
-  **34** Teknologia
-  **35** Aikorrizketa... Egun on. *Buenos días*
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Oscar Terol, umoregilea



26 Zamudioko azoka eta San Martin jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx komunitatea)
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Jose Angel Mentxaka, Iñaki Olabarrieta, Juanjo Ortiz, Joanes Camara, Idoia Andres eta Txiribita

Zuzentzaileak: Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Kattalin Barcena (688 782 642)

Banaketa: Baires

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Portadako argazkia: Mart production (www.pexels.com)

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

Ukraina eta Errusia

Errusiak Ukraina inbaditu ebanetik etenbarik jarraitu izan ditut horko barriak. Ez neban ezagutzen zonaldearen historia eta gerrearen haritik bere historia ezagutzeko jakinmina izan dot.

Herri, kultura ta nazino ugari bizi dira hortik, baina bi izan dira ingurukoak menpean hartu izan dabezanak: prusiarrak (alemaniarrek) eta errusiarrak. Azken mendeetan gerrak izan dira, inperioak indarrez eratu dira, eta herri haundiek txikiak zapaldu izan dabez.

Ukraniaren eta Errusiaren artean halaxe ibili izan dira. Tzarren inperioaren garaian jaio zan Ukraniaren abertzaletasuna. 1917ko iraultza izan zanean Ukrainak bere independentzia aldarrikatu eban, azkenean Sobietar Batasunaren parte izateko. Ukrainarren memoria historikoan lotu da Holodomor. Sobietarren kolektibizazioak hasi ziranean, nekazal produktzio osoa derrigor emon behar eutseen agintariei. Zigor kapitala izan eben agin-

dua bete ez ebenok. Milaka hil ziran gosez. Historiagileek dinoe miloi eta erdi lagunetik gora hil zirala urte hareetan. Hortik gitxira nazien Alemania sartu zanean askatzailatzat hartu ebezan, jakin barik naziak ez zirala hobeak.

Sobietarrak bueltatu ziranean populazino mugimenduak izan ziran Sobietar Batasunaren barruan, jatorrizko herritarrak euren lurraldetik ataraten eta hareen ordeztu errusiarrak eroaten.

Sobietar Batasuna pikutara joan zanean Ukrainiak bere independentzia lortu eban oster a be, baina ez dabe izan oreka politikorik. Ordutik dabil Errusia bazterrek nahasten. Eta orain gerreak lehertu egin dau.

Zelensky Ukrainako presidentearen deialdiek gogora ekarten deustie gurean Francoren gerran bizi izan genduna. Agirre Lehendakariak armak eskatu eutsezan orduko estatu demokratikoei. Alperrik, baina.



IÑAKI ATXUTEGI
Kazetaria

Ukrainak zortzi hilabete daroaz Errusiari aurre egiten hainbat herri emondako armeei eta diruari esker. Auskalo zelangoa izango dan Europa gerrea amaituko danean. Ez dau emoten Ukrainak gerrea galduko dauenik. NATO hilzorian egoan eta orain partaide barriak daukaz. Errusiaren dirua Europatik mugidu da urteetan politikan, kirolean eta kulturean. Buruari bueltaka gabiltzaz ia zer egingo dogun Errusiako gasa edo petrolio barik, baina zer egingo dabe Abascalek, Lepenek... Errusiako babes barik?

Gure pentsamenduetan eta sinesmenetan murgilduta bizi garen bitartean, maitasunez egiten dana gitxiestu egiten dogu. Halan, esparru guztietan txalotzen dan ekintza nagusi bihurtu da norbere ikuspuntua guztiaren ganetik defendatzea. Izan be, ondiño ideologietan oinarritzen diran gizarteetan egoten jarraitzen dogu eta, batzuetan, hori naturalizat jo. Ahaztu egin jaku, oster a, maitasuna ikusteko eta tratatzeko erea dala, eta ez dala poesia edo erromantizismoa.

Halada be, badago ondiño maitasunetik bizi eta lan egiten dabenik. Maite dabezan gauzengaitik preso erori beharrean, horrek bizirik mantentzeko oinarri, zutabe eta teilatuak eraikitzen dabezanak. Ba, halako

Abiapuntua eta helburua maitasuna diranean



EIDER LARRABEITI
Psikologoa

pertsona batzuk omentzeko erabili gura izan dot iritzi-artikulu hau. Eurek, joan dan urriak 7an, Baserri Antzokian, Txorierriko zenbait euskal alkarterengaitik egin eben lez. Bihotzez, eskerrik asko zuori be. Euskaldunok, ideologietatik haratago, bihotza garel a gogoratzeagaitik. Eta zorionekoa ni zeuen pasino, dedikazino eta zintzotasunaren testiguetako bat izan nazelako. Eskerrik beroena, Juan Luis, Xabi, Gabriel, Kepa. Maitasunez izan, pentseu eta ekiteagaitik.



Txorierrin bakarrik 11 kalek eta eraikinek dute emakume-izena

Lan, Gizarte eta Berdintasuneko Foru Sailak www.emakumeak.eus webgunean jaso du Bizkaiko kale-izendegian emakumeek duten presentzia, eta hori oso urria da: % 4,6. Webgunean, emakume-izena duten kaleetako bakoitza geolokalizatu daiteke, eta udalerriko gainerakoekin alderatu. Txorierriri dagokionez, bakarrik 11 kalek eta eraikinek dute emakume-izena.

Webgunean jasotzen denez, Derioko kale-izendegian bi emakume-izen agertzen dira (orotara 42 izen daude): Arantzazu kalea eta Mesedeetako Andra Mariaren Ikastetxea Komentua; Larrabetzun ere, bi emakume-izen (orotara 42): Andra Mariaren Jasokundea eliza eta Andra Mari kalea; Lezaman, emakume-izen bat (orotara 21): Andra Mari eliza; Loiu, lau emakume-izen (orotara 83): Nuestra Señora de la Merced HLBHIP, Esperanza

Alhama BHIP, Santa Luzia kirol-eremua eta Santa Luzia bidea; eta Zamudion, bi emakume-izen (orotara 42): Enara kalea eta Carmen Mendiguren Abaunza kalea. Hala ere, herritar batzuek adierazi dutenez, lehena ez dagokio emakume-izenari, txori-motari baizik. Bestalde, webgunean ez dago Sondikako kale-izen-degiari buruzko daturik.

Teresa Laespada diputatuak azaldu moduan, webgunearen xedea da botere-gune sinbolikoetan, kale-izendegian kasu, emakumeek duten presentzia desorekatua azalaraztea. "Berdintasun- eta eskubide-kontua da, baina etorkizuneko apustua ere bai, emakume-erreferenteek gizon-erreferenteek adina presentzia eta protagonismoa izan dezaten, kale-izendegi, gizarte eta etorkizun berdinezaleetan".



Sandoni eta San Tomas ermitak konpondu dituzte Zamudion

Zamudioko Udalak jakinarazi duenez, konpontze-lanak egin dituzte Sandoni eta San Tomas ermitetan. Azaldutakoaren arabera, konpontze-lanak batez ere teilatuetan eta egurrezko egituretan egin dituzte.

Horrela, bada, Sandoni ermitako arkupeko zutabeetako bat ordezkatu da eta aurrelakatutako altzairuzko xafla marroia ipini da alboetako batean. Era berean, harlangaitz-hormako pitzadura konpondu da eta apurtutako teilak ordezkatu dira. Gainera, xafla asfaltikoa eta poliuretanozko masilla ipini da zigilatzeke. Bestalde, barnealdeko zurari tratamendu prebentiboa eta sendagarria ezarri zaio, eta produktu intsektizida, fungizida eta termiten kontrakoa bota.

San Tomas ermitan ere apurtutako teilak ordezkatu dituzte, baita bi sabai-leiho ere. Halaber, produktu intsektizida, fungizida eta termiten kontrakoa ezarri diote barnealdeko zurari. Izan ere, egurrezko egitura orokorra egoera onean zegoen arren, kondentsazioaren eta aireztatze urriaren ondorioz lizuna eta onddoak zituen.



Enara kalea, Zamudio

aldeko
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Urte 7, behe
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak
zentro bakar batean
—Aurrekontuak doan

—Especialitatea:
umeak

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

ArtileArtean

Mungialde, 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

Bizikletak konpontzeko gunea atonduko da Loiu

Josu Andoni Begoña Loiu alkateak bere webgunean iragarri duenez, herrian bizikletak konpontzeko aire zabaleko eta doako gunea jartzeko eskatu dio udalak Bizkaiko Foru Aldundiari, eta hura laster atonduko da bidegorrian, ortu ekologikoen eremuan hain zuzen. Gunea "bizikletei konponketa txikiak eta mantentze-lanak egiteko tresnak izango ditu: gurpilak puztu edo aldatzeko, torlojuak estutzeko, balaztak doitzeko edo zulatutako gurpilak konpontzeko".



BASERRI ANTZOKIAK EUSKARA BULTZATZEA OMENDU DU. – Txorierriko Baserri Antzokia duela sei urte jaio zen euskaltzaleen topagune bihurtzeko eta bailaran euskara sustatzeko. Urrian urteurrena ospatu dute eta, horretarako, esker ona erakutsi diete euskara eta euskal kultura bultzatzeko zenbait eragilek egindako lanari. Elkarte hauek jaso zuten omenaldia: Larrabetzuko Hori Bai gaztetxea, Lezamako Pilota Kluba, Zamudioko Hiru Bat dantza taldea, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea, Laurotako jai batzordea eta Taberna Ibiltaria musika taldea. Sari-banaketaren ostean, kopaua eskaini zitzaizen sarituei eta han bildutako lagunei, eta Taberna Ibiltaria taldeak ekitaldia girotu zuen.



WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

Dani Lopez da urriko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du saritzat. WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.

ENOLOGIA EGUNA. – Enologia Eguna 12. aldiz egin zuten urrian Sondikako Goiri plazan. Eguraldi ona lagun, haraino hainbat herritar eta bisitari hurbildu ziren, eta azokan bildutako jatorrizko deiturretako ardoak dastatu ahalko zituzten; Rioja, Rueda eta Penedes, haien artean. Gainera, Magalarte Lezama txakolina dastatzeko aukera ere egon zen. Sondikako Udalak jakinarazi duenez, aurtengo Enologia Egunean inoiz baino txartel gehiago saldu dituzte: guztira 1.200. Bestalde, Idiazabal gazta, gildak eta gozogintzako produktuak ere salgai ipini ziren azokan. Azkenik, Lekeria anai-arreba lezamarren talo-txosna jendez gainezka egon zen goiz osoan.



LOIUKO AZOKA. – Loiuko Nekaritza, Gastronomia eta Eskulangintza Azoka azaroaren 16an egin zen 28. aldiz. Pandemia dela-eta, urte bi eman dute azoka egin barik, baina aurtengo azokaren giroa polita izan zen. Postu batzuetan baserriko produktuak jarri ziren salgai. Gainera, kale-animazioa, dastatzeak eta herri kirolak egon ziren, eta txu-txu trenea herritik pasatu zen. Udala "pozik" agertu da, jende ugari bertan batu zelako.

Pumptrack gunearen eta zuhaitzak landatzearen alde egin dute Derion



a: Pumptrack gunea, Zeberion

Partaidetzazko aurrekontuen harira, derioztarrek bost proposamenen artean bozkatzeko aukera izan dute, eta, hango udalak jakinarazi duenez, boto gehien jaso duten egitasmoak izan dira Pump-track gunea bat eraikitzea (2.967 puntu) eta bertoko zuhaitz gehiago landatzea (2.307 puntu). Udalak 120.000 euro gordeta zituen boto gehien jaso duten proposamenak gauzatzera. Gainerako proposamenek hurrengo boto hauek jaso dituzte: hirigunean funtzio anitzeko birziklatze-puntu berria jartzeak, 1.835 puntu; Errekalden berez garbitzen den komun publikoa ipintzeak, 1.804 puntu; eta mini-golf pista bat eraikitzeak, 1.332 puntu.

Udalak azaldu moduan, partaidetzazko prozesuaren bidez aukeratutako egitasmoak 2023ko aurrekontuetan sartuko

dituzte, eta gauzatu. Zehatz-mehatz, 100.000 euroko diru-partida aurreikusi da Pumptrack gunea berria eraikitzeko. Gunea Larrabari eta Santiago kaleen artean atonduko da, eta bertan ipiniko dira bizikleta, skatea edo patinetea erabilia gainditzeko oztopoak, bihurguneak eta arekak. Bestalde, 17.000 euroko diru-partida aurreikusi da bertoko zuhaitzak landatzeko.

Udalaren esanetan, aurtengo bozketaketa-faseak marka guztiak hautsi ditu, izan ere, prozesuan 429 pertsonak hartu dute parte, iaz baino % 335 gehiagok. Gainera, Derioko Umeen Kontseiluak eta Udalak elkarrekin egindako lanari esker, parte-hartzaileen % 19,8 zazpi eta 16 urte bitarteko umeak eta gazteak izan dira, eta ia bikoiztu dute iazko kopurua (% 10).

Bonu-kanpaina, Sondikan

Sondikako Udalak bonu-kanpaina berria ipini du martxan herriko ostalaritzari eta merkataritzari laguntze aldera. Guztira 3.600 bonu ateratu ditu, eta bi bonu-mota ezberdindu. A motako bonuek 15 euroko kostua dute, baina euren benetako balioa 25 eurokoa da; B motako bonuek, bestalde, bost euro balio dute, baina dendetan eta ostalaritzako establezimenduetan 10 euroko balioa izango dute. Udalak A motako 2.400 bonu ateratu ditu, eta B motako 1.200 euro. Bonuak azaroaren 30era arte erabili ahalko dira.

Udalerri euskaldunetako gazteak Larrabetzun batuko dira azaroan

Gazteok Arnas Eguna antolatzen dabiltza Larrabetzuko herritar-talde bat eta UEMA (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea). Egitasmoaren helburua da udalerri euskaldunetako gazteak aktibatzea eta haien arteko harremanak sendotzea. Azaldutakoaren arabera, gazteen eguna azaroaren 26an egingo da Larrabetzun, eta gazteen nahietan oinarritutako egun osoko egitaraua izango da, hala nola tailerrak, kontzertuak eta bazkaria.

enviser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3, 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OAKLAND
ENGLISH

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA



Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Airelitzako doktorea, 11. - 1. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Txorierriko Ipuin Lehiaketa abian da

Bertan nahi duenak parte hartu ahal du, dagokion kategoriaren arabera: A kategoria, 7 urtera arte; B kategoria, 8 eta 9 urtekoak; C kategoria, 10 eta 11 urtekoak, D kategoria, 12 urtetik 15 urtera artekoak eta E kategoria, 16 urtetik gorakoak. Lanak euskaraz idatzi behar dira eta azaroaren 25era arte aurkeztu ahal dira Txorierriko liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan.

Gaia librea da, eta lanak, argitaratugabeak. Horiek ebaluatzeko, hartuko dira kontuan, besteak beste, irudimena, kreatibitatea eta presentazioa. Lanak ez dira lau orrialde baino luzeagoak izango eta parte-hartzaile bakoitzak ezin izango du lan bat baino gehiago aurkeztu. Lanak gutunazal handi batean aurkeztuko dira eta kanpoko aldean kategoria eta bakoitzari dagokion udalerrria idatziko dira. Gutunazal barruan ipuina eta beste gutunazal txikiago bat sartuko dira; azken horretan jarriko dira izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa.

Kategoria bakoitzeko sari bat emango da. Horrezaz gainera, bi akzesit emango dira kategoriako eta herriko. Saritutako lanak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen esku geldituko dira. Gainerako lanak urtarrian zehar batu ahal dira Mankomunitatean. Sariak noiz eta non banatuko diren alde zurretik jakinaraziko da.

Udaletxeko etxabeetan erabilera anitzeko aretoak atondu dira Lezaman

Aretoak doan erabili ahalko dituzte herritarrek eta elkarteek, eta bertan, besteak beste, udal-ikastaroak ere antolatu ahal dira. Lezamako Udalak guztira 270.043 euro ipini ditu aretoak atontzeko lanetan, eta 105.316 euroko dirulaguntza jaso du Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailetik. Aretoek instalazio eta zerbitzu berriak dituzte, hala nola egokitutako komunak, berogailua eta wifia. Bestalde, bi modu daude hara sartzeko: udaletxearen ezkerrean dauden eskaileretatik edo, benetako beharra izanez gero, Kultura Etxean dagoen igogailutik.

Aretoetako bat hiru urtera arteko umeek erabiltzeko da. Hori begiralerik gabeko eta erabilera libreko gunea da, eta familia bakoitzeko heldu bat sartu daiteke umei laguntzeko. Gela astelehenetik barikura, 16:00etatik 19:00etara, erabili ahal da; eta asteburuetan eta jaiegunetan, hurrengo ordutegi honetan: 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Familia bakoitzeko giltza bat emango da. Hori udaletxean eskatu behar da, eta 3,5 euro ordaindu. Aretoak erabili nahi dituzten pertsonak eta elkarteek, berriz, idatzizko erreserba egin behar dute udal-bulegoetan.



ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

Bizkaia

- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

astikenemotor
ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

LOREGARBI

GARBIKETA ZERBITZUAK
Garbi-ikusiak, orokorrean
Auzokoen komunitateak
Mantutzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lekualak
Oinezkoen garbiketa
Ikastetxeak
Zaberrak

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldeakone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNCHALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraun Facebooken



“6.500 baietz, 6.500 amets”, Marikobaso sostengatzeko

Marikobaso Espazioa auzolaneko proiektua da eta lau zutabe nagusi ditu: kultura, euskara, feminismoa eta ekologia. Egoitza Derion du, eta bertan aipatutako arloei lotutako ekintzak egiten dituzte. Ekintzak herritar guztientzat dira. Egitasmoen arduradunek jakinarazi dutenez, lokalak gutxi gorabehera 6.500 euroko gastua dakar urtean. Diru-kopuru hori lortze aldera, “6.500 baietz, 6.500 amets” kanpaina egingo dute azaroaren 20ra bitartean. “Kanpainaren helburua da Marikobaso sostengatzea. 6.500 amets ditugu betetzeko, eta, horretarako, beharrezkoa dugu diru-kopuru hori lortzea. Asmoa da diru-kopurua 2023rako lortzea”, azaldu dute. Kanpainaren harira, urteko

bonuak salgai ipini dituzte 30 euroan eta 60 euroan. “Sostengatzaileek abantailak izango dituzte, esaterako, leku mugatua duten ekitaldietarako lehentasuna eta zenbait ekimenetan deskontuak”.

Bestetik, ekintzak antolatuko dituzte kanpainaren baitan. Horrela, zapatuan, urriak 15, Derioko argazki zaharren erakusketa izango da Marikobaso Espazioan, eta kopaua ere eskainiko da. Horrezaz gainera, musika egongo da. “Azaroaren 20an beste ekintza bat egingo dugu kanpaina amaitzeko. Egun horretan, 2021ean, lehen ekintza egin genuen Marikobason eta asmoa da hura 2022an berrir egitea: kontzertua eta mokaduak, bermut-formatuan”.

Bizitegi-eremuetako argiteria publikoa aldatzen dabiltza Sondikan

Sondikako Udalak jakinarazi duenez, bizitegi-eremuetako argiteria publikoa aldatzeko azken fasea hasi dute eta guztira 1.293 argi aldatuko dira; aurreko fasean, 367 argi aldatu zituzten. Azken fase hau urtarrean amaituko da. Bestalde, azaldutakoaren arabera, udalerriko 11 eraikin publikoetan ere LED argiak ipiniko dira, eta Basozabal futbol-zelaiko fokuak aldatuko dituzte; haien ordez, foku eraginkorragoak jarriko dira. Udalak 700.000 euroko inbertsioa egingo du argiteria aldatzeko. Ondorioz, espero du 54 milioi kilowatt-ordu baino gehiago aurrezte eta atmosferara urtean 278,80 karbono dioxido gutxiago isurtzea.



Zure antzinako bitxiak ekarrita, urrea berrerabiltzen dugu, zure amets setako harribitxia sortuz.

...eta forma ematen diegu...

Zure antzinako bitxiak ekarrita...

...urrea urtzen dugu berrerabiltzeko...

...zure amets setako harribitxia sortuz.

Bitxitegia
Zuluaga
Juan Bautista Uriarte, 49 | GALDAKAO
Tel. 94 456 73 74



t: Itxaso Marina Ondarroa



Ezin gozoago

LAURA CASTILLO | gozogilea

Usain gozo-gozoa dario Laura Castillo derioztarraren labeari eta etxebizitza osora ez ezik eskailburura ere zabaldu da. Tarta du labea, ziur asko, urteak betetzen dituen lagunen bati gozaraziko diona. Castillok urteak daramatza etxeko gozogintza egiten, eta bere gozokien gozotasunak eta orijinaltasunak jaso dute gozozale zorrotzen oniritzia.

“Grina handia dut sukaldaritzarekin zerikusia duen guztirako: sukaldaritza orokorrerako zein gozogintzarako. Gainera, egiten dudana zenbat eta landuago izan, orduan eta hobeto”, azaldu digu. “Egia da amaren etxean mugatuago nengoela: asko zikintzen nuela, gauzak beti traban zeudela... Eta beharrezko tresna asko ere ez nituen. Hortaz, gozogintzan bete-betean hasi nintzen Deriora etorri nintzenean, duela 10 urte”.

Castillok denetariko gozokiak egiten ditu: tartak, opilak, pastelak, te-pastak, galletak... “Fondanta izan ezik, dena egiten dut. Jendea eskatzen dit eta nahi dutena ea egin ahal den aztertzen dut; bestela, beste aukera batzuk ematen dizkiet. Fondanta ez zait gustatzen, azukre hutsa da eta”. Bere etxeko gozokien gozotasuna ahoz aho zabaltzen da senideen eta lagunen artean, eta Instagramen ere kontua du: Los dulces de Lau. “Aste guztietan dut enkarguren bat, gehienbat urtebetetzeetarako. Gabonetan ere mugimendu handia dago: azken Ga-

bonetan, esaterako, 26 errege-opil egin nituen”.

Kinder tarta da gehien eskatzen diotena. “Umeen urtebetetzeetarako. Izan ere, gozo-gozo egoteaz gainera, oso ikusgarria da: Nutella kremazko tarta da, eta apaingarri moduan Kinder arrautzak eta erabiltzen ditut. Ez dakit tarta hori zenbat aldiz egin dudana...”. Zeliakoentzako gozokiak ere egiten ditu. “Bakarrik haientzat

erabiltzen ditudan tresnak ditut”, zehaztu du. Era berean, fit postreak prestatzen ditu, azukrerik gabekoak, eta eskolako urtebetetzeetara eramateko txokolatezko piruleta, galletaxoak... “Behin bizkotxo koloretsua egin nuen ilobarentzat eta ikaskideek flipatu egin zuten. Tarta pertsonalizatuak ere egiten ditut, baina, lehen esan moduan, fondataren ordean beste osagai edo aukera batzuk erabiltzen

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA
GAZTE
DI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

PELUKERIA
ESTETIKA
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144



Harremanetarako:
659 179 924

ditut; adibidez, irudiak olata jangarrietan inprimitzea”.

Bere tarta izarra Kinder tarta izan arren, aitortu digu harro bereziki bere gurin-opilez dagoela. “Sei urte eman ditut gurinezko opilak behar den moduan egitea lortzeko. Asko eta asko bota ditut zakarrontzira...”. Esperimentazioa bere jardunaren oinarrietako bat dela esan digu. “Nik ez dut inoiz ikastarorik egin; oinarrizko errezeta bat hartzen dut eta hura aldatuz joaten naiz, harik eta nahi dudan ukitua lortzen dudan arte. Edo senarrak ontzat ematen duen arte: nire kritikari nagusia da (kar-kar). Gakoa da asko irakurtzea, bideo asko ikustea, esperimentatzea, behin eta berriro saiatzeta... Askotan galdetzen didate saiakera horien guztien emaitzekin zer egiten dudan, ea jaten ditudan... Egia esan, gozokiak baino askoz gehiago gustatzen zaizkit postre gaziak; eskerrak beti boluntarioren bat prest dagoela nire gozokiak dastatzeko”.

Castillo etengabe dabil ikertzen eta berrikuntzak egiten. “Errelanpagoak, esate baterako, pastel-kremaz bete ohi dira; ni,

berriz, saiatzten naiz beste ukituren bat ematen: kafe-zaporeko pastel-krema, txokolatezkoa, pistatxo-zaporekoa... Hala ere, jendeak ohiko errelanpagoak nahiago izaten ditu...”. Derioztarrak aipatu digu normalean ez duela arazorik behar dituen osagaiak topatzeko. “Edozein etxetako sukaldean dauden osagaiak dira: arrautzak, azukrea, irina... Osagai gehienak supermerkatuan erosten ditut erraz, eta osagai bereziagoren bat behar badut eta non erosi topatzen ez badut, Internetera jotzen dut. Izozkiak ere egiten ditut eta horiek prestatzeko osagai batzuk, esaterako, nahitaez hartu behar ditut online... Izozkiak etxerako egiten ditut, baina aztertzen nabil terrinak egiteko aukera”.

Etxeko sukaldean

Delicatessen-gozogintza bogan dago gaur egun eta horretan saiatzeta gustatuko litzaioke. “Ikastaroren bat begiratu dut, baina lekua eta tresneria berezia eta garestia behar da gozogintza-mota hori egiteko”. Izan ere, Castillok bere etxeko sukaldean prestatzen ditu tartak-eta. “Lo-

“Oinarrizko errezeta aldatuz joaten naiz, harik eta nahi dudan ukitua lortzen dudan arte”

“Gakoa da asko irakurtzea, bideo asko ikustea, esperimentatzea, behin eta berriro saiatzeta...”

kal txikiren bat zabaltzea nahiko nuke: labe batzuk, hozkailuak, ikastaroak egiteko gunea... Baina oso inbertsio handia egin behar da eta laguntza gutxi daude. Momentuz etxeko sukaldean moldatzen naiz. Bertan ditu nire «tramankuluak»: 30 kilo pisatzen duen irabiagailu-oragailua –erosi behar izan nuen, asko erabiltzearen ondorioz bi hagaxkako irabiagailuak berehala apurtzen zitzaizkidalako–, izozkiak egiteko makina (16 kilokoak), bizkotxoak egiteko moldeak (10), labeko erretiluak (15), piruletak egiteko moldeak... Bestalde, labe txikia dut eta tartak banan-banan sartu behar ditut hara... Pentsa ezazue lehen aipaturako 26 errege-opil egiteko zelan moldatu nintzen! Bezperan goizaldeko 4etan hasi eta gaueko 9etan amaitu nuen!”.

Derioztarrak etxeko gozogintzaren aldeko apustua egin du. “Naturalagoa da, edonork etxean dituen osagaiak erabilia egindakoa. Pentsa ezazue, hainbeste irauteko, gozogintza industrialak zer izango duen...”. Etxeko labe txikitik usain gozoa jariatzen jarraituko du.


auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, behea B **634 410 470**
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

 **Goiri'78 s.l.**
Zerbitzu ofiziala

Txorierri et., 46
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31


izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA
Sabino Arana, 3 Isonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

t: Gaizka Eguzkitza

Zelan San Miguel jaietan?

Oso ondo, oso gustura, errege moduan tratatu nindutelako. Paseoa egin genuen herritik, azaldu zidaten dena, eta ni poz-pezik egon nintzen. Auzoak urte bi eman ditu jai barik eta gogotsu zebiltzan; beraz, pregoia botatzeko ni aukeratzea oso berezia eta pozgarria izan zen. Jaiaren beste partaide bat izango baintz moduan sentitu nintzen.

Pregoa bota ostean, gelditu zinen parrandan?

Kar-kar. Ez, tentazioari aurre egin behar izan nion. Ezin nintzen gelditu, hurrengo egunean nire ikuskizunaren haririk biran nengoelako eta zaindu behar nuelako.

Pregoa bota duzun lehenengo aldia izan da? Zelan egiten zenion aurre?

Ez, irailean Eltziego herrian (Araba) ere ibili nintzen pregoilari. Lelokeria bada ere, pregoiak ikuskizunek baino ardura handiago ekartzen dit. Eta batzuetan denbora gehiago ekartzen dut pregoia lantzen, ikuskizuna lantzen baino. Niri ziria sartzea gustatzen zait, baina pregoietan kontu handiz ibili behar da, zerbait polita eta barregarria esateko, baina, aldi berean, inor ez mintzeko. Pregoa garrantzitsua da herrientzat eta muga ez da gainditu behar, baina muga er-tzean eroso nago.

Zergatik aukeratu zintuzten?

Duela 20 urte, *Vaya semana* saioko aktoreoi deitu ziguten Deriotik, eta guztiak etorri ziren, ni izan ezik. Beraz, biribila itxi dut, zorra ordaindu dut.

Pandemiak dena jarri zuen hankaz gora. Nolako eragina izan zuen zuregan?

Badakit jende gehienari kalte egin diola, baina niri, lanari dagokionez, onura ekarri zidan: garai hartan ez nuen lanik eta etxean itxita genbiltzala bakarrikzeta egitea eskatu zidaten. Emaizta polita izan zen, arrakastatsua, eta erabaki nuen ikuskizun bihurtzea. Horrela sortu zen *Por comentarlo*. Eta pandemia urtean, 100 emanaldi egin nituen. Gainera, beste ikuskizun bat sortu nuen eta hori hain zuzen ere nabil antzeztan gaur egun. Pandemia lagungarria izan da

"Umorea behar-beharrezkoa da bizitzen jarraitzeko"

OSCAR TEROL | umoregilea

Derioko San Migel jaietako pregoia Oscar Terol umoregileak bota zuen. Duela 20 urte deitu zioten, baina ezin izan zen etorri; beraz, "zorra" ordaindu dio herriari. Gaur egun, Terol *Mundos para los* ikuskizunean dabil murgilduta, bakarrikzeta musikatua. Donostiarrarekin hitz egin dugu, besteak beste, ikuskizunaren, arraskataren eta bizitzaren inguruan.

niretzat, benetan egin nahi nuenaz jabetzeko aukera eman zidalako.

Aipatu duzun bigarren ikuskizun hori *Mundos para los* da...

Bai. Gaur egungo munduari buruzko hausnarketa egiten dut, umorea eta musika uztartzen. Lehen aldia izan da jendaurrean gitarra jo dudana eta nik egindako kanta abestu ditudana. Bakarrikzeta oso formatu erakargarria da, batez ere pandemia garaian, zailtasun eta eskakizun handirik ez duelako eta, ondorioz, erraz kontratatzen zai-tuztelako.

Bakarrikzeta ez du zerikusirik telebistan egindako lanarekin, noski...

Ez, inola ere ez. Telebistan jende asko dago, lan-



talde handiak dira, eta ezin duzu guztiekin harreman ona izan. Gainera, ugazabaren bat ere baduzu, baita ikusleak, ekoizleak, kateak... Baldintza eta kontrol gehiegi. Antzerkian, aldiz, aske sentitzen naiz, ez diot inori azalpenik eman behar eta jasaten dudan zentzura bakarra ikusleena da. Baliabide handirik ere ez dut behar.

Aktorea, gidoilaria, umoregilea... Zer etiketa gustuko duzu gehien?

Besteek pertsona ontzat hartzea gus-tatuko litzaidake eta horretan gabiltza (kar-kar). Edozein izen balio zait: istorien berriemailea; apaltasunez, artista ere gus-tuko dut; umoregilea ere ondo dago...

Vaya semanita saioa oso arrakas-tatsua izan zen. Denboraren poderioz, onura ala zama da zuretzat?

Zama da horren menpe bazaude. Esate baterako, *Allí abajo* saioa ere arrakastatsua izan zen, eta zoragarria da, baina artistok aurrera jarraitu behar dugu. Nik hau esaten diot nire buruari: "Arrakasta behin lortu badut; zergatik ez dut berriro lortuko?". Bizitzak oparitzen dizkizu arrakastak, ho-riek disfrutatu behar dira, baina ez diegu horiei betiko lotu behar.

Zure ibilbidean euskaldunoi buruz egin duzu umorea. Topikoak, aldiz, dio serioak garela. Zergatik euskaldunak?

Umorea atsegin dut, eta horretarako gertu dudana erabili dut. Eta euskalduna naizenez, euskaldunok erabili ditut; bes-tela, ez nintzateke zintzoa izango. Au-kerak naturala izan da. Dena dela, gaur egun ez dut horrelakorik egiten, hau da, nire ikuskizun berrietan, ikuspuntu oro-korrangoak erabiltzen ditut, mundu glo-balizatu batean bizi garelako eta guztion kezka antzekoak direlako. Mundua ero dago eta horren lepotik egiten dut barre.

Izan ere, umorea behar-beharrezkoa da bizitzen jarraitzeko.

"Telebistan baldintza eta kontrol gehiegi; antzerkian, aldiz, aske sentitzen naiz"

"Munduan drama gehiegi dago. Barrea nahiago dut, jendeari barrea eragitea sentsazio ederra da"

Gizarte sareetan oso kritiko ager-tu zara Gobernuarekin eta komuni-kabideekin. Zerbait esan nahi duzu?

Bai, kritikoa naiz. Azken urte bio-tan pandemian bizi izan gara eta ko-munikabideetan, oro har, pentsaera ofizialarekin bat ez zetozen ahotsik ez da entzun. Ez da eztabaidarik egon. Aukera guztiak aurkeztu behar dira eta horren arabera herritarrak erabakiko du zer egin. Komunikabideek ez dute jarrera kritikorik azaldu, doktrinatu nahi izan gaituzte eta horrek fanatismora bideratzen du. Ez nago ados horrekin.

Umorea beti jorratu duzu. Ez duzu inoiz zerbait dramatikoagoa egin nahi izan?

Ez, mundua bada dramatikoa, drama gehiegi dago. Barrea nahiago dut, eta taulen gainean zaudela jendeari barrea eragitea sentsazio ederra da. Guztiok bi-zitzan behin hori sentitu beharko genuke. Zoragarria da.

Ume zoriontsua

Oscar Terol Goicoechea (Donostia, 1959) Lourviers taldean hasi zen Javier Merino eta Lourdes Bediaren batera eta geroago, arrakasta batzuk lortu ditu telebistan: *Vaya semanita* eta *Allí abajo*. Donostiarrak autodidaktatzat jotzen du bere burua. "Gaztetan lagunekin saioak egiten genituen antzerkietan eta tabernetan. Jolasa baino ez zen, baina bat-batean, egun batetik bestera, jolasa ogibide bihurtu zen. Ez dut inoiz erabaki kontziente bat hartu, baina oraindik gustatzen zait jendeari barrea eragitea. Jolasten den umea bezala sentitzen naiz, baina nire kasuan, jolasak bizimodua ateratzea ekartzen dit eta zoriontsu egiten nau".



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserniko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



ITURRIGANE, 2 **EGUNERO**
635584941 8:00-22:00



Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com



Centro Dental Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behe - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

“Egin nahi baduzu, egin”

Tradizioz gizonak nagusi diren lanbide batean saiatzera animatu da derioztarra: karrozeria. Laster 21 urte beteko dituela, argi du sektorean lan egitea gustatuko litzaiokeela eta, desengainuren bat jasoa badu ere, aukera noiz ailegatu zain dago.

t: Itxaso Marina Ondarroa

“Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila amaituta, ez nuen oso argi zer egin. Bulego batean egotea ez da nire gustukoa; niri gauzak egitea eta eraikitzea gustatzen zait, eta zer ikasi pentsatzen nabilela, karrozeria erdi-mailako graduaren berri izan nuen. Autoak gustatzen zaizkit eta interesgarria iruditu zitzaidan horien txapa konpontzea eta margotzea”, azaldu digu. Ikasketak Faduran egin zituen eta, aipatu digunez, hasieran asmo txarreko komentarioren bat entzun zuen ikaskide batzuen ahotik. “Neska bakarra nintzen eta batzuek esaten zuten ez nuela bertan ezta bi aste bete ere iraungo. Bada, bertan ezta hilabete bat ere iraun ez zutenak eurak izan ziren; nik, berriz, gradua amaitu nuen. Dena dela, orokorrean ondo konpondu naiz ikaskideekin: hasieran arraro iruditzen zitzairen ikasgelan neska bat egotea, baina gero ondo. Praktikak Derioko tailer batean egin nituen, eta bertan ere ondo. Hala ere, pandemiak eta konfinamenduak harrapatu gintuzten eta ezin nuen praktikaldi osoa bete”.

Ikasten jarraitu zuen derioztarrak, eta automozio goi-mailako gradua egin. “Basaurin egin nuen eta ikasgelan hiru neska geunden. Karrozeriaz gainera, mekanika ikasi genuen, elektrizitatea... Egia esan, gradu hori kuriositategatik egin nuen, baina niri benetan gustatzen zaidana karrozeria da”. Praktikak Italian egin zituen Erasmus programari esker. “Han itxiagoak dira. Antigoaleko pentsaera dute eta komentario itsusiak entzun

IRAIA NAVAS ATELA | karrozaria



Saskibaloijokalaria

1,80 metroko altuerako emakumea da eta, nola ez, saskibaloijokalaria. “Familia osoak jokatu edo jokatzen du saskibaloian: amak zein aitak eta nebak. Talde batzuetan egon arren, Mungian eman ditut urte gehien. Duela urte eta erdi, osasun-arazoengatik utzi behar izan nion saskibaloian jokatzeari, baina aurtengo denboraldian itzuli naiz eta oso pozik nago. Txorierrri taldeko entrenatzailea ere izan naiz; umeen entrenatzailea, hain zuzen”.

Karrozari ona dela dio, baina saskibaloijokalaria ona ere. “Liga Berezian gaude eta apur bat korapilatsua da, oso maila altuko taldeak daudelako. Ea zelan irtetzen den! Saskibaloian ahal duan arte jarraituko dut, modu ona delako burua bizkortzeko eta kezak alde batera uzteko. Ondo pasatzea dut helburu, eta lehiatzea. Dena dela, futbolearen ez bezala, saskibaloian ez dago aukera handirik; are gutxiago, emakumezko taldea bada”.

nituen; esaterako, ezin izango nuela hau edo bestea altxatu, indarra bakarrik gizonetakoak dutelako. Baina nik erakutsi nien pisuak altxatzeko gauza nintzela: emakume handia naiz eta indarra dut”.

Udaren ostean, lanean hasi zen, praktikak egin zituen Derioko tailerrean. “Baina irailaren azken egunean paperak atera zizkidaten, eta adierazi nire kontratua bertan behera geldituko zela. Esan zidaten nahiago zutela lehen mailako ofizial bat kontratatatu apendiz bati irakatsi baino. Egia esan, ez dut uste emakumea naizelako kaleratu nindutenik; ez dut uste horrekin arazorikzutenik... Baina, hala ere, hasieratik zekiten ni apendiz nintzela... Harrezkero gogoia galdu dut, apur bat...”. Nolanahi ere, curriculumak botatzen dabil. “Aitzakia hau ipintzen didate orokorrean: tailerrean emakume bat egoteak arazoa ekartzen du, ez dutelako guretzako aldagelarik. Antza denez, oso arazo handia da haietaz; nik, berriz, uste dut konponbidea topatu daitekeela: adibidez, komun edo beste guneren bat atontzea edo aldagela gizonak ez daudenean erabili... Beste aldetik, tailer batean komentario positiboa jaso nuen:

“Ikasgelan neska bat egotea hasieran arraro iruditzen zitzaien arren, orokorrean ondo konpondu naiz ikaskideekin”

esan zidaten ez zutela apendiz gehiagorik behar, baina sektore honetan lan egitera ea neska gehiago animatzen ziren”.

Desengainatuta

Lan bila jarraituko duen arren, aitortu digu desengainatuta dabilela. “Gogo handia nuen irailaren hasieran: lanean nengibilen, berriro kirola egiten... Bueno, ea karrozari moduan lana ateratzen zaidan! Bitartean, oposizioak prestatzea erabaki dut. Irakaslea izateko ikastea ere aukera izan daiteke, eta karrozaria irakatsi... Edo tailerra zabaltzea. Ez dakit... Izan ere, aitortu behar da lan gogorra ere badela:

“Aitzakia hau ipintzen didate: tailerrean emakume bat egoteak arazoa ekartzen du, ez dutelako guretzako aldagelarik”

hauts asko irensten da, produktu toxikoak, sorbaldako mina izaten da... Ikusiko dut”.

Benetan gustatzen zaiolako erabaki zuen karrozaria ikastea. “Egia da tradizioz batez ere gizonak bideratu direla sektore horretara, baina zergatik ez dugu emakumeok egingo benetan gustatzen zaiguna? Egin nahi baduzu, egin. Buzoa jantzita sartu naiz trenean eta jendeak nahiko harrituta begiratu dit. Gainera, nire burua apaintzea gustatzen zait eta ingurukoei atentzioa ematen die nik tailer batean autoen txapa konpontzen lan egin nahi izateak: niri ez zait inporta buzoa ipini eta eskuak zikintzea”.



HEGOAN
egiteko aukerak

 **TXORIERRI**
POLITEKNIKA IKASTEGIA
S.COOP.

**BATXILERGOA ETA
LANBIDE HEZIKETA**



Eman izena!
www.txorierri.net



Deriok, Lezamak eta Sondikak bat egin dute “Kerik Gabeko Herriak” ekimenarekin

“Kerik Gabeko Herriak” Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak sortutako ekimen da, helburu nagusi hauek dituen: gune osasungarriak sortzen jarraitzea (kearen esposizio pasiborik gabekoak), tabakoaren desnormalizazioa lortzea, kontsumoaren prebentzioa egitea eta kontsumitzen has-teko adina atzeratzea. Aldi berean, ingurumena hobetzea ere lortu nahi da, aire zabaleko gune batzuk zigarro-punta kutsatzaileetatik eta suteetatik babestuz eta biodibertsitaterako espazio aproposak sortuz.

Horrela, Derio, Lezama eta Sondikako Udalek Kerik gabeko guneen sarean eman dute izena. Sarearen partaide izateak Kerik gabeko gune sinboliko bat sortzea du helburu eta, horretarako, ez erretzea gomendatzen den gune fisiko bat mugatzen da. Ez da erretzea debekatzen.

Herri bakoitzean hainbat esparru markatu dira Kerik gabeko gune moduan eta hurrengo asteetan zehar panelen bitartez markatuko dira.

Sondikan 2 eskola ingurune (haur eskola eta Gorondagane eskolaren inguruak), 7 parke (Txorisolo parkea, Goiri plaza-Liburutegia, Goiri Erdiko plaza, Larrabarrena haur parkea, Ludotekako parkea, Izartza-San Martin parkea eta Sondikako Gaztetxeko inguruak) eta he-


rrian dauden 4 kirol gune (Gorondabeko kiroldegia, Artebe kiroldegia, Larrabarrena kirol kantxa eta skate pistak) zehaztu dira.

Derion, ere, 2 eskola ingurune, haur eskola eta Derioko Herri eskola, halaber; 7 haur parke: Uribe parkea, Pirata Barkua, Eliza ondoko parkea, udaletxearen aurreko aldean dagoen plaza eta Landabarri, Gastañatxu, Errekatueta kaleetan dauden

parkeak, eta, 4 kirol gune desberdin (Kiroldegia, Gaxianeko kirol pistak, Derioko Futbol Zelaia eta Udako Igerilekuaren inguruak) aukeratu dira.

Lezaman, azkenik, eskola publikoaren ingurua eta 5 haur parke zehaztu dira kerik gabeko gune moduan: udaletxe aurreko parkea, elizako parkea, Euskaldun Berri plaza, Kurtzeko parkea, Txoko ondoko parkea eta Ikastetxe inguruko parkea.

**KERIK
GABEKO
GUNEAK**

Txorierriko
25. Ipuin lehiaketa

Idazteko ez dago adinik
ANIMA ZAITEZ!

Lanak entregatzeko epea: azaroaren 25era arte, liburutegietan edo Mankomunitatean

Txorierriko Mankomunitatea
Bizkaia



A25

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren
Aurkako Nazioarteko Eguna

Zuhaitz bereziak, mitikoak eta ap

t/a: Iñaki Olabarrieta eta Jose Angel Menthaka

Gaur egun, batzuentzat zuhaitz estimatuenak dira *pinu insignisa* eta eukaliptoak. Ez dugu hemen horretan sakonduko, baina gure inguruetan egon dira, eta badaude, beste era bateko zuhaitzak, zaindu beharrekoak eta mendez mende garrantzi handia izan dutenak. Esate baterako, ikatza egiteko pagoak eta arteak, artzainen kaikuak egiteko urkiak, euren babespean batzarrak egiteko arteak eta haritzak –Gernikako arbola hor dugu–, mugak jartzeko –Luyandoko Malato Zuhaitza– eta sinesmenen eta sinologiaren munduan garrantzitsuak izan diren lizarrak, haritzak eta haginak.

Aipatutako azken horretan hain zuzen, haginean (*taxus baccata*), ipiniko dugu arreta; erdaraz *tejo* da. Hagina ez da oso zuhaitz ezaguna, ezta ikusten erraza ere. Garai batean, hilezkortasun-sinboloa izan zen gure kulturen, bi mila urte baino gehiago iraun dezake eta. Hilerri eta ermiten inguruan landatzen ziren. Ehun Urteko Gerran (1337-1453), Ingalaterrak hiru bataila irabazi zizkion Frantziari, eta kontatzen denez, hori haginez egindako



Gorbeian hagin gazteak babestuta.



Ezkerraldean, San Romango artea (Muxika). Goiko aldean, ezkerraldean, Etxeitako artea (Garai); eta eskuinaldean, hagin gaztea (Gamiz-Fika).

Aginaldeko hagina bisitatuko dugu. Barazarreko mendate igoko dugu, eskuinera egin, eta 3 km ingurura Saldropo hezeguneko aparkalekua ikusiko dugu. Oinez jarraituko dugu porlanezko pistatik, Gorbealara doan bidetik; ezkerretara karobi baten az-tarnak daude. Bidea lurreko pista bihurtzen da aurrerago, eta bidezidorra, aldapa gogorra gero. Haitz baten azpitik pasatuko gara: Atxuriko igarobidea da, ikusgarria, baina kontuz ibiltzekoa. Azken zailtasunak gaindituta, lautadaxora helduko gara. Gorbeia toki politenetarikoa da hau, garbia ibiltzeko, Aldamin eta Gorbeia aurrez aurre ditugula. Eskuinera egingo dugu. Bide garbirik ez dagoen arren, erraza da aurrera egitea; hala ere, lainoa badago, hobe da ez jarraitzea. Lautadaxoaren ertzetik ahalik eta hurbilen joanda aurkituko

artekoak

arkuak erabiltzeari esker izan zen: geziak askoz urrutiago bidaltzen ei zituzten.


Jakin-beharrekoa da haginaren hostoak eta fruituak oso pozoitsuak direla, eta, hortaz, ez direla ahora eraman behar. Dokumentatuta dagoen moduan, erromatarren eskuetan jausi baino lehen, asturrek, kantabriarrek eta gure ingurukoek hagin-infusioa edaten zuten euren buruaz beste egiteko. Horri lotuta, "heriotza-zuhaitza" ere deitu zaio. Beraz, ikusi, hurbildu eta disfrutatu, baina ez ebaki ezer: pozoitsuak izateaz gainera, haginak babestuta daude.

Arabara joan behar da Euskal Herriko hagin handiena ikusteko: Antoñana herritik Soila mendira doan bidezidorra hartu, "La senda del agin", eta laster aurkituko dugu hagintzarra. Bilboko parkean ere pare bat hagin eder daude. Bestalde, Bizkaian hurrengo zuhaitz hauek Aparteko Zuhaitz izendatu dituzte, eta babestu: Garain Etxetako artea; Muxikan, San Romango artea; Artzentalesko haritza; eta Gorbeian, Arimekorta edo Aginaldeko hagina. Beste hamaika zuhaitz berezi ere aurkituko ditugu gure mendietan; disfruta ditzagun.

Aginaldeko hagina (Gorbeia)



Ibilbide proposamena



dugu Arimekorta tontortxoaren buzoia (939 m).

Behean pista batzuk eta aterpeak ikusiko ditugu, eta harantz joango ga-

ra. Pistara heldu, eta ezkerretara, 50 metro eskasera, monumentu megalitiko bat dago muinotxo baten gainean. Errekatzuetako Atxa trikuharria da. Ez da erraza hu-

ra topatzea, baina bisitatzea merezi du. Pistatik jarraituko dugu, baina ez Gorbeiarantz, kontrarantz baizik. Aginaldeko hagina 300 metro eskasera dago, aterpe txiki baten ondoan. Gure helburura heldu gara. Handia da, ederra, zaharra... Inguru guztian hagin txikiak daude, heziek babestuta.

Bi aukera ditugu Saldropora itzultzeko: etorri garen bidetik itzuli (4,5 km) ala porlanezko pistatik aurrera egin (8 kilometro dira, erosoagoak, baina astunagoak). Azken hori aukeratuz gero, pistatik jarraituko dugu behera eta behera. Ikusiko dugun lehen base-riaren ostean, eskuineko pista hartuko dugu eta apurka-apurka gora eginez Saldropora helduko gara; bestela, Zeaunurin amaituko dugu.

Euskara gutxi Txorierriko kaleetan

Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren Txorierriko datuak bildu ditu Soziolinguistika Klusterrak txosten batean. Euskararen erabilerari dagokionez, ez dira datu onak, behatutako solasaldien % 10,7 baino ez baitira euskaraz izan. Neurketa 2021eko urrian egin zuten Txorierriko sei udalerrietan eta guztira 5.909 solasaldi behatu zituzten; elkarrizketa horietan 18.015 solaskide izan ziren.

t/a: Itxaso Marina

Klusterrak emandako datuen arabera, Txorierriko kaleetan gaztelania entzuten da gehien: % 88,4. Euskararen atzean daude frantsesa (% 0,2) eta beste hizkuntza batzuk (% 0,7). Datuak herriak ere jakinarazi dituzte. Horrela, Larrabetzu da euskara gehien entzuten den Txorierriko udalerria (% 47,3), eta Loiu, gutxien entzuten dena (% 2,4). Bestalde, euskararen kale-erabilera % 20,6koa da Lezaman, % 8,6koa Zamudion, % 4,2koa Derion eta % 4koa Sondikan. Txostenaren egileek azpimarratu dutenez, hurrengo joera hau nabarmentzekoa da: Bilbotik zenbat eta hurbilago egon, hainbat eta euskara gutxiago egiten da kalean.

Datuak aztertzeke orduan, zenbait aldagai hartu dituzte kontuan; sexua horien artean. Hala, Euskal Herri osoan errepikatzen den joerarekin bat etorritar, emakume txorierritarrek gizon txorierritarrek baino euskara gehiago erabiltzen dute kalean: % 11,7 eta % 9,7 hurrenez hurren. Adin-tarteak kontuan hartuta, umeak dira kalean euskara gehien erabiltzen dutenak: % 16,4, hain zuzen. Horien atzean daude heldu gazteak (% 12,8), adinekoak (% 6,8), heldu nagusiak (% 6, 7) eta gazteak (% 6,4). Haurren eta heldu gazteen euskararen erabilera batezbestekoaren gainetik dago.

Solas-taldea nortzuek osatzen duten ere aztertu dute, eta kale-erabilera orokorraren joera errepikatzen da. Horrela, haurren eta heldu gazteen artean euskaraz egiten da gehien: % 10,5 eta % 8,5 hurrenez hurren; erabilera nabarmen baxuagoa da gainerako adin-tarteetan: % 5,7 gazteen artean; % 4,4 heldu nagusien artean eta % 5,3 adinekoen artean. Beste aldetik, datuen arabera, solas-taldea umeek eta nagusiek osatzen dutenean, euskararen erabilerarik altuena izaten da:

*Bilbotik zenbat
eta hurbilago egon,
hainbat eta euskara
gutxiago egiten
da kalean*

*Emakumeek
gizonek baino
euskara
gehiago erabiltzen
dute kalean*

*Ume eta heldu gazteen
artean euskaraz egiten
da gehien; erabilera
nabarmen baxuagoa
da gainerako
adin-tarteetan*

% 20,7. Datu hori ere bat dator Euskal Herriko joera nagusiarekin. Izan ere, azaldu moduan, umeak tartean daudela, euskaraz aritzeko joera nagusitzen da. Klusterren ustez, nolabaiteko arau soziala da eta sendoagoa da haurren eta heldu eta gazteen kasuan, ziur asko gurasoek seme-alabei euskaraz egiteko erabaki sendoa hartu dutelako. Azkenik, haur eta nagusien arteko solasaldietan umea hizlaria denean, euskararen erabilera % 23koa da, eta hizlaria nagusia denean, % 19,8koa.

Euskal Estatistika Erakundeak 2016an argitaratu moduan, Txorierriko biztanleen ia erdia, % 49,8, euskalduna da, eta % 19,5ek euskara ulertzen dute. Hortaz, 10 biztanletik ia zazpi dira euskaraz hitz egiteko edo ulertzeko gai. Gaitasun hori kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako VI. Mapa Soziolinguistikoak hirugarren gune soziolinguistikoan (% 50-80 udalgaitasuna) kokatzen du Txorierri. Herriz herriko datuei dagokionez, derioztarren % 40,2 da euskaraz hitz egiteko; larrabetzuarren % 76,1; lezamarren % 67,1; loiuztarren % 49,6; sondikoztarren % 43,9; eta zamudioztarren % 49,2.

Hausnartzeko unea

Soziolinguistika Klusterrak Txorierriko Baserri Antzokian, Derion, aurkeztu zituen euskararen kale-erabileraren datuak. Aurkezpenean, eskualdeko euskaltzaleak eta eragileak batu ziren, 50 lagun baino gehiago, eta datuak ezagututa, lantaldeetan aritu ziren Txorierriko kaleetan euskara gehiago entzuteko proposamenak eta irtenbideak aztertzeke.

Gazteen lan-mahaiaren arduradun ibili zen Aitziber Argiarro, Txorierriko Euskalaldiaren dinamizatzailea ere badena. Azaldu digunez, datuek berretsi egin dute lantaldeko gazteek kalean sumatutakoa, eta azpimarratu du gazteen artean batez ere kontzientzia- eta motibazio-falta dagoela. Era berean, nerabezaroa etapa korapilatsua dela kontuan hartuta, hark ere gatzetxoan euskararen erabileran eragin negatiboa duela aipatu du.


Gazteek esparru akademikotatik kanpo ere euskaraz egiteko proposamenak bota zituzten lantaldean, eta horietako batek ikastetxeetan bertan du abiapuntua. "Zigorretik edo inposiziotik baino, euskararen erabilera samurtasunetik eta maitasunetik transmititu behar da. Metodoa aldatu beharra dago; hala ere,

1. taula. Biztanleak, elkarrizketak eta solaskideak. Txorierri, 2021 (Abs.)

UDALERRIA	BIZTANLERIA	ELKARRIZKETAK	BEHATUTAKO SOLASKIDEAK
Larrabetzu	2.091	948	3.045
Lezama	2.391	748	2.360
Derio	6.983	868	2.576
Loiu	2.247	1.073	3.035
Sondika	4.488	1.219	3.729
Zamudio	3.194	1.053	3.270
TXORIERRI	21.394	5.909	18.015


Iturria. Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa, TXORIERRI 2021. Iturria. EUSTAT, 2021

1. grafikoa. Hizkuntzen kale erabilera. Datu orokorra. Txorierri, 2021 (%)



Frantsesez: % 0,2
Beste hizkuntzetan: % 0,7
Euskaraz: % 10,7

2. grafikoa. Euskara-gaitasuna. Txorierri, 2016 (%)





Derion, kalean euskara erabiltzeko orduan, alde txikia dago gizonen eta emakumeen artean, nahiz eta, Sozio-linguistika Klusterraren datuei erreparatuta, lehenek gehiago erabiltzen duten: % 4,3 eta % 4,1 hurrenez hurren. Adintarteari dagokionez, heldu gazteek gehiago egiten dute euskaraz (% 8,2). Ondoren daude haurrak (% 7,9), heldu nagusiak (% 1,8), gazteak (% 1) eta adinekoak (% 0,8). Joera orokorrari jarraituta, euskara gehiago egiten da haurren artean (% 2,2) nagusien artean baino (% 1,7), eta solasaldietan umeak eta nagusiak daudenean euskararen erabilera % 12,2koa da.

Larrabetzun, emakumeak gizonak baino gehiago mintzatzen dira euskaraz kalean: % 53,3 eta % 42,2. Era berean, umeak dira euskaraz gehien egiten dutenak (% 64) eta horien atzean daude adinekoak (% 48,6), heldu gazteak (% 43,4), gazteak (% 40,3) eta heldu nagusiak (% 31,5). Umeen artean ere euskara gehiago entzuten da (% 59) nagusien artean baino (% 33,6), eta

badakigu hori modu objektibo batean gauzatzea zaila dela, euskararekiko maitasuna helarazteko modua edo jaiotasuna irakaslearen arabera dela. Txorierriko gazteak batzeko erreferentziatzeko gunea sortzea ere garrantzitsutzat jo dute. "Gazteen aisialdia, eta ez erakundeek-eta antolatutako aisialdia, emateko lekua izan behar da. Horrela, eta kontuan hartuta Bilbotik zenbat eta hurbilago egon, euskararen erabilera txikiagoa dela, hiriburura joatea ekidingo litzateke, eta gune hori baliatu euskararen erabilera gazteen artean kutsatzeko". Bestalde, uste dute udalek eta erakundeek egoerak sortu behar dituztela gazteek euskaraz hitz egiteko beharra sentitzeko. "Jarduera hau edo bestea antolatu, baina euskara hutsean".

Olga Loroño Txepetxa AEK euskaltegiaren arduradunaren ustez, datu kezagarriak dira orokorrean. Azken urteotan ikusi duen moduan, ikasle asko, edo gehienak, titulu bila joaten dira euskaltegira. "Galduta euskara jakiteagatik eta euskaraz hitz egiteagatik ikasteko gogo hura. Eta, beste aldetik, gogo duenak eta denbora eta dirua inbertitzen duenak, beharbada, ez du euskara erabiltzeko gune



erakargarri nahikorik, eta ikusten du, Txorierriko edozein herritan bizitzeko eta integratzeko, euskara beharrezkoa ez dela. Horrek motibazio-falta ekartzen du".

Nolanahi ere, bere iritziz, euskararen erabilera neurtzeko orduan ez dira kontuan hartu pertsonen portaeretan eragina duten gizartearen joera batzuk. "Momentu konplexuak bizi ditugu, eta aurreikuspen ekonomikoak kezagarriak dira. Ondorioz, indibidualismoaren joera areagotu egiten ari da, eta komunitate-

sentimendua galdu. Askotan hitz egiten da norbanakoaren erantzukizunari eta babes politiko handiagoaren beharrari buruz, baina, nire ustez, komunitate-sentimendua ere ezinbestekoa da euskara erabiltzeko, babesteko eta sostengatzeko. Eta norbanakoaren erantzukizunaren eta erabaki kontzientearen gainetik egon behar du, askotan horiek ez direlako nahikoak izaten". Bestalde, hizkuntza-politika eraginkorragoak sortzea ezinbestekotzat hartu du. "Benetako plangintza

Herriz herri

umeen eta nagusien arteko hizketaldietan euskara da nagusi: % 65,7. Bestalde, 2017an ere euskararen kale-erabilera neurtu zuten Larrabetzun, eta urte bietako neurketen datuak alderatuta, ikusi daiteke euskararen kale-erabilerak behera egin duela adin-tarte guztietan. Horrela, erabilerak orokorra % 55,1ekoa zen orain dela bost urte; % 71,6koa, umeen kasuan; % 54,3koa, gazteen kasuan; % 50,8koa, helduei dagokienez (% 38,1, 2021ean); eta % 48,6koa, adinekoen kasuan.

Lezaman behatutako kaleko solasaldietatik ateratako datuen arabera, bertan emakumeek gizonak baino gehiago egiten dute euskaraz kalean (% 22,7 eta % 18,8 hurrenez hurren). Umeek ere gehiago erabiltzen dute euskara (% 26,7), eta horien ostean, heldu gazteak (% 23,1), heldu nagusiek (% 16,8), adinekoak (% 10,3) eta gazteak (% 6,3). Era berean, euskara gehiago entzuten da umeen artean (% 15,3) nagusien artean baino (% 9,7), eta

umeen eta nagusien arteko elkarrizketa denean, euskararen erabilera % 39koa da.

Beste aldetik, Loiuko kaleetan ere emakumeek gizonak baino gehiago erabiltzen dute euskara: % 2,6 eta % 2,2. Hitzunen adinari dagokionez, heldu gazteak gehiago egiten dute euskaraz (% 4,1). Horien atzean daude umeak (% 4), adinekoak (% 1,4), heldu nagusiak (% 1,2) eta gazteak (% 0,5). Solasaldietan bakarrik umeak daudenean, euskararen erabilera % 2koa da, eta bakarrik nagusiak daudenean, % 1,1koa; umeak eta nagusiak daudenean, berriz, % 5,1ekoa.

Joerari jarraituta, Sondikan ere emakumeak gizonak baino gehiago min-

tzatzen dira euskaraz kalean, aldea oso txikia bada ere: % 4,1 eta % 3,9. Halaber, umeak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (% 7,8), eta ondoren daude heldu gazteak (% 5,4), gazteak (% 1,9), heldu nagusiak (% 1,7) eta adinekoak (% 1,2). Euskararen erabilera % 3,6koa da umeen artean; % 1,3koa, nagusien artean; eta % 10,2koa, elkarrizketa umeen eta nagusien artean denean.

Azkenik, Zamudioko kaleetan ere euskara gehiago entzuten da emakumeen ahotik gizonen ahotik baino: % 9,9 eta % 7,3. Adina kontuan hartuta, umeek gehiago egiten dute euskaraz (% 12,2), eta horien atzetik, heldu gazteak (% 11,2), gazteak (% 5,9), heldu nagusiek (% 5,3) eta adinekoak (% 3,3). Txorierriko gainerako herrietan ez bezala, Zamudioko umeen arteko solasaldietan euskararen erabilera txikiagoa da nagusien arteko solasaldietan baino: % 4,5 eta % 5,3 hurrenez hurren. Joera nagusiarekin bat etorrita, umeen eta nagusien arteko solasaldietan, euskararen kale-erabilera % 21,ekoa da.

*Solas-taldea umeek
eta nagusiek osatzen
dutenean, euskararen
erabilerarik
altuena izaten da*

Txorierrin gure artean euskeraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



EUSKARA IKASTAROA 22/23

Maila guztiak (16 urtetik gorakoentzat)
Ikastaroen iraupena: urritik ekainera

Ordutegi zabalak:

Astean 10 / 7,5 / 6 / 4 ordu
Autoikaskuntza

Matrikula zatitan ordaintzeko aukera
Dirulaguntzak: % 50-% 75

Erdu geugaz!

EUSKARA GUZTIONTZAK



Hiretzat



Niretzat

Harentzat



Herriko Plaza, 3 - DERIO Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38 euskaltegia@txorierri.eus

3. grafikoa eta mapa. Hizkuntzen kale erabilera udalerrietan. Txorierri, 2021



Iturria. Hizkuntzen Erabilera Kale Neurketa, TXORIERRI 2021. Soziolinguistika Klusterra.

“Komunitate-sentimendua ezinbestekoa da euskara erabiltzeko, babesteko eta sostengatzeko”

ikasteko erraztasunak eman. Izan ere, hori momentu kritikoa da, non gurasoak nahiko prest dauden euskara ikasteko”.

Euskal kontzientzia

Emaitzek ez dute Laura Martinez Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko euskara teknikaria ustekabeen harrapatu. Hala ere, horiek egungo testuinguruan kokatu behar direla azpimarratu du. “Bi urteko pandemiak kalean izan du eragina, eta ikastetxeetan eskola-saioak bertan behera utzi izanak ekarri du umeen eta gazteen euskara-maila behera egitea. Kalleko giroa pixkanaka berreskuratuz joan arren, harreman digitalak nagusitu dira, eta beste aldetik, beharrezkoa bada ere, migrazioak hizkuntzan duen eragina ere hartu behar da kontuan”. Nolanahi ere, lanean jarraitu ahal izateko, arreta datu positiboetan ipini behar dela uste du. “Euskararen erabilera gaztetu da, gehien erabiltzen dutenak umeak eta heldu gazteak direlako. Hori oso lorpen sozial handia da. Bestalde, euskararen ezagutza


eraginkorrak egin behar dira, herrien ezaugarriak kontuan hartuta eta, arlo guztietan eragin ahal izateko, eragile guztien parte-hartzea bultzatuz”. Lehen bezala, euskaltegiak kalera ateratzeko beharra ere azaldu du. “Euskara ikasten dabilen jendea badagoela ikusarazteko. Halaber, harremanak estutu edo indartu beharko genituzke beste egitasmo batzuekin, esaterako, Berbalagun egitasmoarekin... Askok dago hausnartzeko, eta lan handia, egiteko”.

Xabi Goienetxe TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioak aipatu moduan, datu txarrak izan arren, inportantea da “sumatzen genuena” zenbakitan ikustea, “kontzienteago egiten gaituelako”. Bere esanetan, azken 20 urteotan behera egin dute euskararekiko presio sozialak eta, neurri batean,

euskararen prestigioak, eta horiek biak daude hain erabilera txikiaren arrazoiaren artean. “Beste aldetik, egitura handietan plan orokor bat falta zaigu, non hainbat esparru ez formalak banan-banan aztertzen diren; adibidez, lagun arteko aisialdia”.

Etorkizunari begira eta egoerari aurre egiteko, arreta umeengan, gazteengan eta guraso gazteengan ipintzea proposatu du. “Tresnak ipini behar dira ume txikien gurasoen eskura, ipuinak, jolasak... non topa ditzaten jakin dezaten. Era berean, euskararen prestigioa eta beharrezko jakinarazi behar zaie, eta seme-alabak txikiak direnean euskara

4. grafikoa. Hizkuntzen kale erabilera adinaren arabera. Txorierri, 2021 (%)



“Egitura handietan plan orokor bat falta zaigu, non hainbat esparru ez formalak banan-banan aztertzen diren”

nahiko altua da Txorierri, eta horrek ere aukera asko zabaltzen dizkigu”.

Bere ustez, euskal kontzientzia sortzeko beharra dago, eta euskara positibismo-tik transmititu. “Modu batean edo bestean

sustatu behar dugu erabilera umeengan eta gazteengan. Arlo batzuetan, arlo digitalean esaterako, ez da erraza izango, hor ingelesa eta gaztelania nagusi direlako, baina hausnartu beharko da nola egin. Halaber, euskararen ezagutza bermatu behar da hezkuntzan, eta ez bakarrik maila akademikoan. Helburua euskaraz hitz egitean eroso sentitzea da. Euskaraldiaren atarian gaudela, adierazi du egun horietan biziko dugunak indarra eman beharko ligukeela urte osoko hainbat praktika aldatzeko, taberna eta dendetan hasieratik euskaraz aritzeko, adibidez. “Horretarako, lanean jarraitu behar dugu merkatariekin

eta ostalariekin”. Gainera, aipatu du Txorierriko herri-batzordeek hilabeteak daramatzatela lanean, ilusioz eta gogoz. Baserri Antzokian kale-erabileraren aurkezpen-ean hainbeste jende batu izana ere esanguratsua dela nabarmendu du, eta horrek erakusten duela kezka eta ilusioa egon badaudela erabileran eragiteko.

Azkenik, beharrezkotzat jo du eremu ez formalean umeentzako eta gazteentzako aisialdi-eskaintza biderkatzea, eta egitasmoak beren-beregi bultzatzea gazteentzat. “Euskara hutsezko guneak sortzea ere garrantzitsua da, baita erreferente euskaldunak sortzea ere”.

GABONETAKO LOTERIA

aikor!
txorierriko aldizkaria

40229

a: Zamudioko Udala

San Martin jaien bezpera izateaz gainera, Zamudioko Azoka da Bizkaiko nekazaritzaren egutegiko hitzordurik garrantzitsuetako bat. Ohiko den moduan, zapatuan, azaroak 5, egingo da Txokolate, Gozoki eta Artisautza Azoka; eta domekan, azaroak 6, Nekazaritza Azoka. Era berean, azokaren baitan izango da Bizkaiko Limusin Arrazako Abeltzori Txapelketa. "Azken edizioetan bertaratze-markak hautsi ziren; beraz, urte hauen ostean espero dugu aurtengoa gutxiago ez izatea", adierazi du Lander Aretxabaleta kultura zinegotziak. "Herriarren artean azokaz berriz goatzeko gogo bizia dago, eta ekoizleak ere publikoarekin elkartzeko irrikan daude. Azokarik gabeko azken urteak sano gogorrak izan dira sektorerako, eta orain zailtasun berriei egin behar zaie aurre, krisi energetikoaren ondorioz. Horregatik dira Zamudioko Azoka eta gainerako jai-hitzorduak hain garrantzitsuak, euren lana eta kalitateko produktuak kontsumitzaileengana hurbiltzen dituztelako".

"Azoka oso garrantzitsua da, kontsumitzaileengana baserriarren lana eta kalitateko produktuak hurbiltzen dituelako"

Hortaz, euskal nekazaritzaren onena, artisautza, txokolatea eta gozokiak aurkituko ditugu Zamudion. Zapatuan, esaterako, 50 postutik gora izango dira azokan, eta Eusko Labeleko txerriki-paella, limusin okelaren kebaba eta artisau-garagardoa dastatzeko aukera egongo da. Bestalde, domekan 90 postu inguru ipiniko dira eta haietan, besteak beste, barazkiak izango dira, fruta, gazta, txakolina eta euskal pastela. Halaber, Idiazabal gazta eta txakolina dastatuko dira, azalpenak eta guzti. "Nobedade moduan, eta udalak elikagaiak alferrik galtzeari aurre egiteko hartu duen konpromisoaren harira eta FoodRus proiektu europarraren barruan, informazio-erakustoki bat egongo da, eta

Gogo biziz ospatuko dute za



Dena prest dago Zamudion, azaroan nekazaritza azoka eta sanmartinak ospatzeko. Pandemiaren bi urteren ostean, azokaz eta jaietz lehen moduan goatzeko irrikan daude herriarrek, bisitariak eta ekoizleak. Azaroaren lehen bi asteburuetan, beraz, jai-giroa izango da bertan.

horretan etxeetan janaria ez botatzeko aholkuak emango dira, elikagaiak berriro aprobetxatzeko errezetak, eta errezeta horietako batzuk prestatuko dira *cooking show* batean".

Beste aldetik, Bizkaiko Foru Aldundiak lehen sektorea indartzeko kanpaina ipini du martxan, eta egitasmoa Zamudiora ere ekarriko du. "Guztiok batu behar ditugu indarrak, lehen sektoreari laguntzeko. Azokak topagune eta erakusleho dira,

eta Aldundiak kanpaina honen bidez ematen duen bultzada ere funtsezkoa da". Aretxabaletaren esanetan, "azoka kontsumitzaileak eta ekoizleak jai-giroan batzeko aukera da, eta, horrela, euren lanaren balioa azpimarratzeko. Izan ere, lan itzela egiten dute, mahai gainean hurbileko eta kalitateko produktuak izan ditzagun". Azkenik, Landa XXI elkarteak Baserriarra eta harro liburua ekarriko du Zamudioko Azokara. Lan horretan ema-

amudioztarrek



kume baserritarren lanaren balioa nabarmendu dute. "Egindako ahalegina eskertzen dugu. Gogoan izan behar da emakumea beti egon dela landa-eremuan, eta sektorearen hazkundera euren lanari asko zor diola".

Sanmartinen zain

Bi urteren ostean, betiko moduan ospatuko dituzte zamudioztarrek sanmartinak. "Gorri markatutako hitzordua da Zamudioarentzat, eta jai-egitarua ilusio handiz prestatu dugu, ikusmin horrek eskatzen duen mailan egoteko". Jaiak azaroaren 10etik 13ra bitartean izango dira, eta udalak eta Eguraldi Ona jai-batzordeak egitarau orekatua prestatu dute. "Edade guztietako eta gustu ezberdinetako jarduerak hartu ditugu kontuan: hori da

Azaroak 10, eguna.

San Martin bezpera

–19:00 Txupinazoa eta pregoia, Sabino Arana plazan.

–Ostean, kartel lehiaketako saria banatzea, gozokiak eta kalejira.

Azaroak 11, barikua.

San Martin

–11:00 Umeentzako tailerrak, eskolan.

–12:00 Meza nagusia.

–12:30 Gora bihotzak ikuskizuna, eskolan.

–13:30 Umeentzako herri-bazkaria, eskolan.

–15:30 Zinea, eskolan.

–17:00 Jolasak, eskolan.

–19:00 Bakarriketa, Agirre Lehendakaria plazan (eguraldi txarra egonez gero, eskolan).

–22:30 Musika-emanaldiak, eskolan: Zirkinik Bez + Dj Kalonge.

Jai-egitaraua

Azaroak 12, zapatua.

San Martintxu

–11:00 Umeentzako jolas-parkea, eskolan.

–12:00 Meza nagusia eta kopaua, elizpean.

–18:00 Euskal dantzak, Hiru Bat taldearen eskutik, eskolan.

–19:30 San Martin XXXV. Kontzertua, Zamudioko Kamara Koraltaren eskutik, San Martin elizan.

–20:30 Burrumba elektrotzaranga.

–22:30 Musika-emanaldiak, eskolan: Urrats + Dj Gorka Perez.

Azaroak 13, domeka

–16:00 Karta-txapelketa, Adintsuen Etxean.

–18:00 Musika-emanaldia, eskolan: Joselu Anayak.



Joselu Anayak. a: wikipedia

LANAK ETA BERRITZEAK • ERAIKUNTZAK

Tel.: 944.520.905 info@cemanconstrucciones.com



Edalontzi tapadunak banatuko dira

Zapata Gorriak Zamudioko talde feministak jakinarazi duenez, Zamudioko Azokan postua ipiniko dute eta horretan aurkeztuko dute jaiei begira prestatu duten materiala. "Jaietan puntu morea egongo da eta han banatuko dira neskatoentzako edalontzi tapaduna, edarietara substantziak botatzen dituztela aurreikusita. Edalontzi horietan «Kaleak, gauak geureak dira» idatzita egongo da, eta kamisetak eta belarritakoak ere kaleratuko ditugu. Bestalde, azokako postuan zein jaietako puntu morean gizonentzako informazio-diptikoak banatuko ditugu". Bestalde, puntu morea ipintzeaz

gainera, brigada feminista sortuko da sanmartinei begira. "Puntu morea Erakiz Kolektiboak kudeatuko du eta bertan adituak egongo dira. Era berean, arreta-telefonoa egongo da, indarkeriaren kasurik badago, hara deitzeko, egoera kudeatzeko eta egin beharreko pausoak eta aholkuak jakinarazteko. Telefonoa hau da: 633 918 561". Talde feministak esan moduan, bideoa ere egin dute herriko gazteekin, eta hura jaien aurreko astean plazaratuko dute. "Helburua da jendeak hainbat egoera ikustea, ze egunero esaldi matxistak botatzen dira konturatu barik horiek ere indarkeria direla".

herritarrek baloratzen dutena. Aurreko edizioetako ildo beretik ibili gara, baina beti ahalegintzen gara zer edo zer berri sartzen; esaterako, umeentzako parkea egongo da zapatu goizean". Zalantza barik, gaueko musika-emanaldiak jende asko erakartzen dute. "Baina umeentzako jolasak eta ikuskizunak, bakarriketak,

dantzak eta adinekoentzako karta-txapelketa ere egongo dira".

Jai-guneari dagokionez, ospakizunak herriko hainbat lekutara zabalduko dira. "Betiko moduan, txupinazoa Sabino Arana plazan izango da. Jarduerak eskolan ere egongo dira, besteak beste, umeentzako tailerrak, gaueko musika-emanaldiak eta

*Jai-guneari dagokionez,
ospakizunak herriko
hainbat lekutara
zabalduko dira.*

Hiru Bat dantza taldearen dantza-saioa. Kopaua San Martin elizan eskainiko da zapatuko meza nagusiaren ostean, eta arratsaldean Zamudioko Kamara Koralk San Martin jaietako ohiko kontzertua egingo du 35. aldiz. Adintsuen Etxean, bestalde, karta-txapelketa izango da, bakarrik zamudioztarrentzat dena".

Zamudioko Udalak espero du jaietan pertsona guztiak errespetatzea eta egoera edo eraso sexistarik ez gertatzea. "Hala ere, halakorik gertatuz gero, udalaren eta Zapata Gorriak elkartearen artean adostutako protokoloa dago eta behar den neurrian aktibatuko da, biktimari laguntzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak kontuan izanda". Aretxabaletak hurrengo mezu hau helarazi die zamudioztarrei eta bisitariei: "Jaiez, kulturaz eta tradizioaz gozatu daitezen, baina errespetuz. Eta oraindik Zamudio ezagutzen ez dutenak animatu daitezen etortzera eta ondo pasatzera".

ZAMUDIOKO AZOKA



ZEMENDIAK 5-6
GUZTIA KARPAPEAN

5

ZAPATUA
10:00

VIII. TXOKOLATE, GOZOKI ETA ARTISAUTZA AZOKA

XVIII. BIZKAIKO LIMUSIN ARRAZAKO ABELGORRI TXAPELKETA

10:00-14:00 | STAND INFORMATIBOA ETA BERRAPROBETXAMENDUKO SUKALDARITZA (EUROPAKO FOODRUS PROIEKTUA)

11:00 | ABERE LEHIAKETA (EMEAK)

12:00 | ARTISAU-GARAGARDOAREN DASTAKETA, AZALPEN ETA GUZTI

13:00 | TXARRIKI (EUSKO LABEL)- PAELLA, LIMUSIN OKELAGAZ EGINDAKO KEBAB-A ETA ARTISAU-GARAGARDOA DASTATUKO DIRA

TIKETAK SALGAI ADI ZAMUDIO APP-AN, URRIAREN 24TIK ZEMENDIAREN 3KO 13:00 ARTE. PREZIOAK: FRESKAGARRIAK, EURO 1; GARAGARDOA, 1,5 EURO; PAELLA, 2 EURO ETA KEBAB-A, 3 EURO. EGUNEAN BERTAN BE EROSI AHAL IZANGO DIRA TIKETAK, 50 ZENTIMO GEHIAGOTAN.

17:30 | ABERE LEHIAKETA (ARRAK)

6

DOMEKA
10:00

XXXV. ZAMUDIOKO AZOKA

XVIII. BIZKAIKO LIMUSIN ARRAZAKO ABELGORRI TXAPELKETA

10:00 | LIMUSIN ABELGORRIEN, ZAMUDIOKO GANADUAREN ETA MEKAZARITZA PRODUKTUEN ERAKUSKETA

11:30 | IDIAZABAL GAZTAIAREN ETA TXAKOLINAREN DASTAKETA, AZALPEN ETA GUZTI

13:00 | BIZKAIKO LIMUSIN ARRAZAKO ABELGORRIEN TXAPELKETAKO SARI BANAKETA

13:30 | MEKAZARITZA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

ARTOLATZAILEA:



LAGUNTZABEAK:



bbk

gizarte ekintza obra sozial



FOODRUS

Musika, lagun artean

PENTAGRAMA SONDIKAKO MUSIKA-ELKARTEA

Pentagrama Sondikako musika-elkarteak 25 urte bete ditu aurten eta hori ospatzeko, kontzertu erraldoia egin zuen irailaren 24an, Larrabarrena parkean. Ibilbide honetan, hainbat saio egin ditu, baina batez ere musikarako zaletasuna zabaldu du. Gaur egun erreferentea da herrian.

t: Gaizka Eguzkitza / a: Juanjo Ortiz

1997an akordeoi-jotzaile gazte batzuk batu ziren Yolanda Ugarteren zuzendaritzapean eta Pentagrama musika-elkarte sortu zuten. "Hasiera, 10-12 kide baino ez geunden eta gure erreperorioa xumea zen: *Larrosa kolorez jantzia, Hara nun diran, Euskal Herrian euskaraz...* Urte bukaeran, saioa eskaini genuen eta arrakastatsua izan zenez, jarraitzea erabaki genuen", esan digu zuzendariak.

Apurka-apurka, urterik urte, taldea "era natural" batean hazi egin da. "Semea taldean hasi zen: hasieran, akordeoia jotzen zuen, baina baxua eta gitarra jotzen hasi zenean, instrumentu horiek orkestran txertatzea proposatu zuen. Eraitza polita izan zela ikusita, beste musika-tresna batzuk ere sartu ziren taldean: perkusioa, haize-instrumentuak...". Aldi berean, taldekideak gero eta nagusiagoak dira eta gero eta eskarmentu gehiago hartu dute eta horri esker, erreperorioa gero eta konplexuago ere egin da. "Hasiera batean, kanta sinpleak ziren, folkloreaki lotuta. Hala ere, gaur egun, kanten zerrenda guztion artean adosten dugu eta denetarik jotzen dugu: rocka, popa..."

Gaur egun 20-25 akordeoi inguruk osatzen dute taldea. Gainera, rock taldea ere badute, hau da, bateria, gitarra, ba-

xua, tronpetak eta ahotsak. Guztira, 30 lagun inguru. "Gehienak sondikoztarrak, baina kanpoko herrietatik ere etortzen dira: Bilbo, Derio... Adinari dagokionez, batez ere 20 urtetik 30 urtera bitartekoak, baina nagusiago eta gazteago batzuk ere baditugu. Partaideak gogotsu azaltzen dira eta urtean hiruzpalau saio ematen ditugu: jaietan, San Joan, Santa Zezilia, Gabonetan... Kultur Etxean ez dugu normalean jotzen, lekuri ez dugulako (kar-kar)", esan du Ugartek.

Zuzendariak taldearen giroa azpimarratu du. "Guztiok ezagutzen dugu elkar, harreman ona dugu... Musika maite dugu eta lagunak gara. Lantaldea eta errespetua sustatzen ditugu, guztiok garrantzitsuak garelako. Eta erabakiak ere guztion artean hartzen ditugu. Harrotasunez esan behar dut inoiz ez dela arazorik gure artean egon. Ez da marka makala 25 urte hauetan". Tamalez, batzuek ez dute oraindik taldea ezagutzen; Ugartek kontzerturen bat zuzenean ikusteko gonbitea egin die haiei. "Gehienetan, lehendabiziko aldiz entzuten digutenean, harrituta gelditzen dira".

Konpromisoa

Ez da erraza 25 urtean elkarte bat bizirik mantentzea. "Gaur egun umeek aukera handia dute, eskolaz kanpoko jar-



duerak egiteko eta batzuetan zaila da musika aukeratzea. Horren haritik, 20. urteurrena ospatu genuen, taldeak luze iraungo zuen ez genekielako. Zorionez, taldekideek oso konpromiso handia adierazten dute eta horri esker jarraitzen dugu. Behin, horietako batek esan zidan: "Nahiz eta zu eta biok baino ez egon, aurrera jarraituko dugu" (kar-kar). Eskertzekoa da, edozein talde kudeatzeak energia handia eskatzen duelako eta batzuetan erraza ez delako".

Horri pandemia gaineratu behar zaio. "Itxialdiak eta kalte handia egin zigun, batzen uzten ez zigutelako, irabazi-asmorik gabeko elkarteak garelako. Eta ez genituen entseguak bultzatu nahi, kutsatzea ekiditeko. Horrek etsipena ekarri zigun, motibazioa galdu genuen. Eta izugarri kostatu zitzaizkidan berriro martxan jartzea". Hori dagoeneko badago gaindituta, eta Ugarte pozik agertu da taldearekin. Hala ere, anbiziotsutzat jo du bere burua, eta etorkizunean Pentagrama apur bat handiagoa izan nahiko luke. "Urtero saio handi bat prestatu nahiko nuke eta hori hiruzpalau aldiz antzeztu. Garestia da eta ez dakit baliabide nahikorik dugun hori egiteko".

*"Guztiok ezagutzen
dugu elkar, harreman
ona dugu...
Musika maite dugu
eta lagunak gara"*

*"Urtero saio handi
bat prestatu nahiko
nuke eta hori hiruzpalau
aldiz antzeztu.
Garestia da, baina..."*



25 urte

Pentagramak taldeak ondoen dakienez modura ospatu zuen bere urteurrena: kontzertu erraldoiaren bidez. "Saio berezia izan da, goi-mailakoa. Herriak bat egin zuen urteurrenarekin eta talde batzuek ere hartu zuten parte: Gorantzaileak dantza taldea, Zelaia txistu taldea, Olagüe eta Txuma Olagüe Abesbatza, baita Ane Uruburu, Eneko García e Irene de León dantzariak ere. Kanta batzuetan 60 lagun egon ginen taula gainean", azaldu digu Yolanda Ugarte zuzendariak. Kontzertua irailaren 24an izan zen Larrabarrena parkean. Errepertorio zabala eskaini zuten: *Living on a prayer* (Bon Jovi), *Hijo de la luna* (Mecano), *Hallelujah* (Leonard Cohen), *Zombie* (Cranberries), *Perfume de Mujer* (Carlos Gardel), *Haizea* (Ken Zazpi)... Filmen kantak ere jo zituzten: *El rey león*, *El libro de la selva*, *El padrino*... Jendea poz-pozik gelditu zen, eta gu ere bai. Oso polita eta hunkigarria izan zen".

TALDEA  **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com



BOS eta PAI Bitartean

t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Emaus Gizarte Fundazioko PAI Bitartean zerbitzuak antolatzen dituen ekin-tzen artean beti dago irteeraren bat gure eguneroko errutina apurtzen duena, eta ikasteko eta inguruko lekuak eta egitasmoak ezagutzeko baliagarria dena. Azkena izan da Bilboko Orkestra Sinfonikoaren entsegu orokorra ikustea.

Jose Garate "Fois" Itoiz talde mitikoko baxu-jolea izan zen, eta gaur egun Bilboko Orkestra Sinfonikoko (BOS) musikaria da. Fois elkarriketatu genuen Ganbara Gizarte Irratian eta horri esker jaso genuen BOSen gonbidapena. Erik Nielsenek zuzenduta, kontzertua egingo zuten Marie-Pierre Langlamet harpalariarekin batera eta gonbidatu egin gintuzten Euskalduna Jauregian entsegu orokorra ikustera. Gonbidapen bazterrezina iruditu zitzaigun eta antolatze-lanei ekin genien.

Ongietorriaren ostean azaldu ziguten zer ikusiko eta entzungo genuen. Hasteko, BOSek Andres Isasi musikagile bilbotarraren pieza batzuk, 100 urte zituztenak, joko zituen, eta gero Langlamet harpalari frantsesaren musika gozatuko genuen, zeina Ukrainako soinetan oinarrituta baitzegoen. Era berean, Euskalduna Jauregia eraikitze



zertan inspiratu ziren azaldu ziguten, eta lekuaren historia kontatu. Askok gene-kienez, jauregia dagoen lekuan Euskalduna ontziola zegoen lehen eta bertan itsasontzi asko eraikitzen zituzten. Ontziola ixtea erabaki zutenean, protesta eta istilu handiak izan ziren Bilbon. Oso leku adierazgarria da eta omenaldi moduan ikusi daitezke ontzietako zatiak diruditen txapa-ale handiak eta itsasoan gaudela pentsarazten diguten korridore luzeak eta gune zuri-urdin zabalak.

Kontzertua hasi eta berehala konturatu ginen musikak harrapatuta geundela, eta biolin, tronboi eta danborren artean

arin-arin pasatu zitzaigun saioak iraun zuen ordubetea. Gainera, eserlekuak musikariengandik oso hurbil ipini zizkigutenez, erreparatu ahal izan genien haien eskuen mugimenduei eta taldekideen koordinazioari eta zehaztasunari. Halaber, izugarritzko abileziak artista nagusiak jo zuen harpak ere txunditu egin gintuen.

Euskalduna Jauregitik liluratuta eta oso eskertuta ateratu ginen. Oso goiz atsegina izan zen eta espero dugu esperientzia behin baino gehiagotan gozatu ahal izatea. PAI Bitartean zerbitzuko erabiltzaileek eta langileek BOSi eskertu nahi diogu emandako aukera.

RPS: 184/10

TIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Ala-apaindegia

M^a Antonia Llodio

Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ZAMUDIO
Loteria Nazionalea

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Urrezko makila

t: Txiribita / a: www.freepik.com

Solidago virgaurea. Oso landare eza-guna da Euskal Herrian eta itsasaldean zein mendian topatu dezakegu, bide-ertzetan, mendi-hegal harritsuetan, landetan, sasi artean... Hogei zentimetro eta metro bat arteko altuera izan dezake. Hosto eliptikoak eta luzeak ditu, eta hori koloreko loreak. Azken horiek landararen goiko aldean ateratzen dira, estuak dira eta mordoak osatzen dituzte.

Hostoak eta loreak biltzen dira. Loraldia udaren amaieran hasten da, baina toki batzuetan azaroan ere topatu daitezke loreak. Hostoak eta loreak landarea erabat loratu ondoren batu behar dira. Lehortzeko modurik onena da sorta txikietan zintzilikatzea. Lehortu ondoren, poteetan edo oihaletan bilduta gorde behar da.

Sukaldean

Loreak jangarriak dira, eta entsaladetarako bizigarri onak. Hostoak ziazerbak moduan kozinatu daitezke, edo zopetan, gisatueta eta salsetan erabili. Era berean, galdarraztatu daitezke, geroago, neguan edo udaberrian, erabiltzeko.

Ezaugarri sendagarriak

Diuretikoa da, lehorgarria eta hanturaren eta kongestioaren kontrakoa. Hurrengo hauetarako erabili dezakegu:

- Giltzurrun- eta gernu-hantura, giltzurrun-kalkuluak eta zistitisa arintzeko. Liki-doak atxikiz gero ere erabili daiteke, txiza egiteko lagungarria baita. Era berean, gota arintzeko eta kolesterolak behera egiteko hartu dezakegu (infusioa), diuretikoa eta garbitzailea delako.

- Beherakoa eteten laguntzeko (loreak erabilia umeentzako xarabea prestatu daiteke).

- Odola garbitzeko (infusioa edo tintura).

- Urtaroko alergiak eta hotzeriak arintzeko. Espektoratzaile ona da eta arnasbideetako kongestioa kentzen du. Asmarako edo eztulerako erabili daiteke. Lehorgarria denez, lagungarria da uda-amaierako eta udazken-hasierako alergiak ekartzen dituzten begi muki-tsuak, sudurreko muki-jariatzea eta doministikuak arintzeko. Bestalde, eztarriko mina arintzeko ere baliagarria da, propietate antiseptikoak eta mikrobioen aurkakoak dituelako. Biriketarik mukiak ateratzeko ere erabili daiteke (infusioa edo xarabea).

- Barneko zein kanpoko zauriak orbaintzeko. Ahoko zaurietarako, adibidez, infusioa hartuta gargarak egin daitezke, kanpoko zaurietarako, kataplasma ipini.

Infusioa: 20 g landare ur litro bakoitzeko. Hartu egunero bizpahiru edalontzi.

Xarabea: Egosi 150 g landare litro erdi uretan, 10-12 minutuan. Utzi 12 orduan

Hartu ondo ezagutzen duzuna, neurritz eta soilik lekuan asko badaude. Utzi beti zerbait, eta ez atera landarea sustraitik. Ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira. Ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan. Hartu dezakezu larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan, galdatu gabeko basoetan, toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ batu areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan. Hartu goizean. Erabili eskularruak...

atseden hartzen eta iragazi ondo. Gehitu kilo erdi azukre beltz, nahastea berotzen den bitartean; pixkanaka-pixkanaka lodituz joango da, eta xarabe-itxura hartuz. Eragin eta berotu, xarabea prest egon arte.

Erabilera kosmetikoak

Loreak eta hostoak oliotan beratu daitezke, edo zaurietarako eta erreduretarako kataplasma moduan erabili. Urrezko makilaren olio milorriarekin eta Santiago belarrarekin erabili daiteke, zauriak orbaintzeko baltsamoa egiteko. Halaber, olio giharrei masajea egiteko eta artritis arintzeko erabil daiteke. Azaleko minetarako, hala nola ekzemetarako, onddo-etarako eta pikortetarako, infusioa erabili daiteke eremua garbitzeko. Olio edo baltsamoa ere erabili daitezke.

Kataplasma: txikitu ondo hostoak eta loreak, bildu ondo oihaletan eta ipini tratatu beharreko gunean.

Kontraindikazioak

Bihotzeko arazoak dituztenek eta haurdun daudenek ezin dute hartu.





Egun on. *Buenos días* Elebidunak ala elebigunak gara?



a: Daria Obymaha (www.pexels.com)

t: Juan Luis Goikoetxea

*Irriño batek elektrizitatea baino gu-
xtiago balio du, baina beste hainbeste argi
emaiten du⁽¹⁾.*

Nori ez zaio gozo goizeko kafe zu-
rrutada edo agur egitean irribarrezko kei-
nua? Hizkuntzara gatozenez, osteras, as-
kotan esan *Egun on* eta erantzuten didate
Buenos días. Erantzun didanak *Buenos
días* ez dit alegantziarik sortu; ez dauka
euskaraz egiteko asmorik, badaki-eta
neuk egin beharko dudala erdaraz. Se-
guru sentitzen da erdal erreinu irmoan.
Beraz, euskaradunok elebidunak ala ele-
bigunak gara? Ze, bera, erdalduna, ez
da aldatzen; neu derrigortzen nau Japo-
niako *eshaku* erreberentzia egitera.

Noren aurrean makurtzen gara *esha-
ku* eginez? Eta noren aurrean ez gara ma-
kurtzen?

EUSKARA ENTZUN BAI, ULERTU EZ
praktikatzen duenaren aurrean makur-

tzen gara: Nepomuceno jauna Meñakako
Maria andre euskaldunarekin ezkondu
da. Emaztea kantaria da eta herriz herri
dabil abeslari. Domekaz, eguerdi aldera,
Patxo eta biok beraien etxera hurreratu
gara. Egin diogu galdeketa emazteari;
oso interesgarria! Amaitzean, isil-isilik
egon den senarrari itaundu dio Patxok:

–Ulertzen duzu euskara Nepomuce-
no?

–Entzun bai, ulertu ez!

EUSKARA ENTZUN BAI, ULERTU ERE
BAI dioenarekin ez gara makurtzen: Txo-
rierriko auzo batean gertatua da. Txe-
rria hil dutenez, ezagun asko elkartu
dira baserriko atarian, abere gaixoari hil
orduan eusteko -erruki barik eusteko-.
Ostean, kopaua eta txakolina hartu eta
gero, taldeko bat bertsotan hasi da, in-
dartsu. Bospasei kantatu dituenean, sue-
tetik agertu da hiriburuko Mauricio, eta
taldekide batek galdetu dio:

–*¿Mauricio, te gustan los bertsolaris o
qué?*

–*Mucho, sobre todo cuando levantan
la piedra hasta el hombro.*

EUSKARA ENTZUN, ULERTU ETA ERA-
BILTZEN DUENA euskaltzalea da, geu-
re kidea: euskaldunon artean, euskal-
dun berriak eta euskaldun zaharrak bizi
gara. Euskaldun zaharren artean bi mo-
tatakoak, behintzat, badira: batzuk gu-
raso erdaldunen seme-alaba euskaldun
zaharrak; besteak: guraso euskaldunen
seme-alaba euskaldun zaharrak, den-de-
nak euskaldunak.

Argi-argi adierazi behar dugu BERBA-
LAGUNeko ikasleak pozgarriak direla
euskaldunontzat. Imanol Berriatuak⁽²⁾
honela idatzi zuen: “Gure gazte askok ez
dute amets egiten. Ez dute herriaren deia
entzuten. Entzumena galdu dute. Ez di-
tuzte egunsenti berriaren izpiak ikusten.
Ikusmena galdu dute. Itxaropena galdu
dute. Zahartu egin dira gaztaroan. Bai-
na euskaltegiatako neska-mutilen pen-
tsamenduak berriro ekarri dit poza eta
alegantzia”.

EUSKARA ONDO DAKITENAK, BAINA
ERDAL ZALEAK DIRENAK: “*Unos dicen que
sí, otros dicen que no*” izan zen Bilboko
gotzain baten erantzuna –parkatu, izen-
deiturak ez esatea–. Bileraren ostean ho-
laxe itaundu zioten gotzainari:

–Berorrek badaki euskaraz?

Eta erantzuna:

–*Unos dicen que sí y otros dicen que no.*

Beraz, elebidunak ala elebigunak ga-
ra euskaldunok? Kanabera biguna da,
baina okertu arren, ez da apurtzen; be-
rriro jartzen da tente, haize bolada igaro
ondoren.

(1) Abbé Pierre, HERRIA aldizkaria. Baiona, 3657
zenbakia. 2022ko irailaren 22koa.

(2) Imanol Berriatua. Ikasle Israelen. 1. Maila. Zarautz,
1982.

elekma
URRIATZEAREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKAK
lehenengo mailak • Preziarik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Txarriren etorbidea, 25-3.N • 48180 Leku
T: 944 539 232
www.elekma.es

XURREGOITI
JATETXEA
Laurroeta etorbidea, 27
48180 Leku-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantexurregoitia.com

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

Etxeko sukaldaritza

Zizak txirlekin

t: M. Lekerika / a: Kindel Media (Pexels)

Osagaiak (lau pertsonentzat):

- Kilo erdi ziza
- Kilo bat txirla
- Kipula bat
- 4 berakatz-atal
- Oliba-olioa eta gatz
- Koilarakada bat irin
- Litro erdi-arrain salda
- Piperrauts apur bat
- 150 ml ardo zuri

Prestatzeko era:

Zizak tiratan ebakiko ditugu, eta olio apur batean erregosi. Gatza botako diegu. Gordeko ditugu. Bestalde, kipula eta berakatzak txikitu, eta zartagin batean erregosiko ditugu. Irina gehituko dugu, ardoa eta piperrautsa, eta minutu pare batean egingo dugu. Ondoren, arrain-salda eta txirlak gehituko ditugu. Azken horiek zabaltzen direnean gehituko ditugu zizak. Apur bat irakiten izango dugu eta zerbitzatuko dugu.

Kalabaza-kaneloiak
piper-saltsan**Osagaiak (bi pertsonentzat):**

- 12 kaneloi-orri
- 25 g gurina
- Edalontzi bat esne
- 100 g kalabaza
- 2 tomate
- Kipula bat
- 6 pikillo piper
- Ardo zuria
- Gazta arraspatua
- Berakatza
- Oliba-olioa
- Gatza

Prestatzeko era:

Ontzian dauden argibideei jarraituko diegu pasta hidratatzeko. Kipula txikituko dugu, eta kalabaza dadotan moztu. Biak bigunduko ditugu oliotan. Edalontzi erdi ardo zuri gehituko dugu, eta lurruntzen utzi. Tomate txikituak gehituko ditugu, eta minutu batzuetan egosiko ditugu. Kaneloiak betetzeko, nahasi hori erabiliko dugu. Bestalde, gurina zartagin batean urtu, eta bertan frijituko ditugu, arin, berakatza eta piper txikituak. Irina gehituko dugu, esnea eta gatz, eta egosten izango dugu harik eta saltsa loditzen den arte. Saltsa xehatuko dugu, kaneloien gainetik bota, gazta gehitu, eta gratinatuko dugu.

GAMINIZ

JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

PATXI

KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarra piztasna - Chantrea 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 527 567 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



Umeen txokoa: sei desberdintasunak

Ezetz sei
desberdintasunak
topatu irudi bien artean.
Bukatzen duzunean,
irudiak margotu eta
moztu ahal dituzu.
a: recrekids.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Barbaroak eta zibilizatuak: *Euskal gatazken eskuliburu materialista* (Txalaparta), Ibai Atutxa Ordeñana.

–*Kirun karun pek* (Txalaparta), Jon Suarez Barrutia. Ilustratzaileak: Malen Amenabar eta Mariñe Arceo.

–*Poema liburu bat -irakurtzeko jarraibideak* (Erein), Angel Erro Jimenez.

–*Joanes Etxeberri andereñoaren erresidentzia* (Txertoa), Pakita Arregi Goenaga.

LITERATURA: GAZTEAK

–*Kixkur eta Pinttoren arreba* (Elkar), Iñigo Astiz Martinez. Ilustratzailea: Mikel Valverde Tejedor.

–*Atzamarra* (Elkar), Asun Agiriano. Ilustratzailea: Marina Garcia.

–*Amaren bila* (Elkar), Alaine Agirre. Ilustratzailea: Mar Ferrero.

Sudokua

1	9					7	4	6
2				9				8
		7				6		
8	1		2	6				
	2			4	1			9
6	4	5	8					
		2						
						4	5	

2	5	4	9	7	6	1	8	3
3	9	8	4	5	1	2	7	6
7	1	6	2	3	8	5	4	9
6	8	3	1	4	7	9	2	5
4	7	5	3	9	2	6	1	8
1	2	9	6	8	5	7	3	4
8	3	1	7	6	9	4	5	2
9	4	7	5	2	3	8	6	1
5	6	2	8	1	4	3	9	7

RADIO TAXI FEMADE *Zure taxi, Teorierikoa*
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu
24h **94 480 09 09**
ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9.00-19.00
Laburuntza:
8.00-13.30
Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419

Ikuskizunak

Derio

- > *Los sueños no tienen cima* emanaldia, Susana Ruizen eskutik. Azaroaren 17an, 19:00etan, Kultur Birikan. Untza mendi taldeak antolatua.
- > *Jamming session*. Azaroaren 11n.
- > Santa Zezilia. Ipar Alde abesbatzak meza abestuko du. Azaroaren 19an, San Isidro elizan.

Zamudio

- > Ipuin-kontaketa: Dantzara plaza. Azaroaren 22an, 17:30ean, ludotekan.

Tailerrak eta ikastaroak

Zamudio

- > Risoterapia. Azaroaren 5ean, 19:30ean, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: azaroaren 4a.
- > Gure gorputzaren hipersexualizazioa: pornografia eta prostituzioa. Azaroaren 17an, 19:00etan, Zamudiotarren. Zapata Gorriak taldeak antolatua.
- > Pizza. Azaroaren 19an, 18:30ean, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: azaroaren 18a.

Bestelakoak

Derio

- > Odola ematea. Azaroaren 16an, 16:30etik 21:00etara, anbulatorio ondoan. Odol Argia elkarteak antolatua.

Zamudio

- > Emakumeen Kontrako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna. Elkarretaratzea, beira-arasaren aurrean. Azaroaren 25ean, 19:00etan, Zapata Gorriak eta Lagunandre elkarteek deituta.
- > Berdintasunaren aldeko ginkana. Azaroaren 26an, 18:30ean, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: azaroaren 25.

Susana Ruiz. a: www.anediagalicia.blogspot.com



TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 SONDIKA
944 711 282
Info@inmobiliariatxorierri.com

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zerbitzu Berriak:
Logopedia
Podologia
Kiroprasajea

clínica dental ZAINDUZ
hortz klinika

Txoriñi etorbidea, 9 - Lortia | Antsaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txoriñi etorbidea, 5-4
413. bulegoa
48160 Derio

Telefonoa eta larria
94 454 44 98
a.amondarain@euzkoiprat.net

PiKoteo Taberna

KAXOLAK - OLAGARROA
TXIPIROIAK

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 6
48170 ZAMUDIO
689 213 782

TOLDOS TXORIERRI
TOLDOS B. GOYOAGA

Lona industrialak
Sareak
Eguzki-ohialak
Alokatzeko lonak

Torrelarragoiti ind, P2
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegia ondoan

*Jaietan be,
euskara jalgi hadi
Zamudioko herrira*

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
ALKARTEA
www.lagatzu.org

**zamudion
euskeraz?
hoba ez!**

HORTZ KLINIKA
GANDIAGA
94 608 62 30 - 31
klinikagandiaga@euskalnet.net

- Odontologia orokorra
- Inplanteak
- Ortodontzia
- PADI

10:00etatik 20:00etara arte
eta larunbatetan (aurretiko txanda)

Txantxangorri, 2 - lokala 1. ezk.
(sarrera Lehendakari Agirre Plazatik)
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


**ZAMUDIO
BATZOKIA**

Azaroaren 8an eta 9an
Txarriboda menua:
(porrusalda, odolostea eta giharra)

Arbolantxa, 5 ☎ 846 664 093 / 666 849 324

CB *Ileapandegia*
Ana Belén
estetika - solariuma

Perretxiko, 4 lonja - Tel.: 94 403 68 60 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**txantxangorri
gozokiak**



Txantxangorri 2
Zamudio
678 996 422

✓ Gosariak
✓ Pintxoak
✓ Otartekoak
✓ Entsaladak
✓ Sandwichak
✓ Hamburgesak
✓ Plater konbinatuak
✓ Odolosteak

MOSAI
Taberna

Txantxangorri, 2
48170 ZAMUDIO
94 471 83 41

**Eramateko
janaria**

Gorbeia, 7 Behea
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 452 21 41
Faxa: 94 452 21 42
www.gestionzamudio.com
gestionzamudio@gestionzamudio.com

**Gestión
Zamudio**

Aholkularitza Fiskala
Jon Vázquez García
AKTUARIO-EKONOMILARIA



2022KO UDAZKENEKO ESKAINTZAK

UDAZKENA STHILEKIN HASTEN DA

SORTARIK OSATUENA ETA
ZERBITZURIK ONENA

agrojardín
Astikene



DISTRIBUIDOR
PREMIUM

STIHL

BANATZAILE PREMIUN
BAKARRA BIZKAIARAKO

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA

944 540 652

 688 633 197

astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com